

Txosten politikoa

HEMEN
ERABAKI,

HEMEN
BURUJABE

euskoalkartasuna.eus



aurkibidea

1. Logika politikoa	
testuinguru sozioekonomikotik abiatuta	5
2. Eusko Alkartasunaren	
oinarri ideologikoak	10
2.1. Autodeterminazioa eta independentzia	11
2.2. Printzipio demokratikoa	12
2.3. Sozialdemokrazia	13
3. Euskal jendartea eta balioak	14
3.1. Aniztasuna eta kulturartekotasuna	14
3.2. Gatazka armatuaren ondorengo bakegintza	15
3.3. Feminismoa	16
3.4. LGTBIQ. Identitate aniztasunaz harro	17
3.5. Kohesioa, nortasun-ezaugarria	17
3.6. Euskara	19
3.7. Hezkuntza	21
3.8. Trantsizio ekologikoa, agroekologia, biodibertsitatea, ekonomiazirkularra	22
3.9. Trantsizio energetikoa	24
3.10. Trantsizio digitala	25
3.11. Gazteak	26
3.12. Pentsionistak	28
3.13. Balioak eta identitatea	30
4. Euskal Herria, naziotik estatura	31
5. Euskal estatua Europan, eta Europako eta munduko nazio eta herriekiko harremanak	35
5.1. Diasporaren papera	38
6. Parte-hartze politikorako modu berriak eta antolaketa-eredu berria.	
Euskal Herria Bildu eta Euskal Herria Bai	39

1. Logika politikoa

testuinguru

sozioekonomikotik

abiatuta

- 1 Ia bost urte igaro dira Eusko Alkartasunaren azken txosten politikoa onartu zenetik. Tarte horretan, gizarteak espero gabeko aldaketa izan du mundu mailan, inoiz pentsatuko ez genukeen pandemia baten agerpenaren ondorioz (beste arrazoi batzuen artean).
- 2 Estatuan zein nazioartean, bakoitza bere ikuspegi politikoaren mende, 2008ko atzeraldi handiari edo krisi ekonomikoari begira zegoen gaurkotasun sozioekonomikoa. COVID-19ak, ordea, hankaz gora jarri zuen mundua, eta agerian utzi zituen eredu neoliberal nagusiaren ondorioak.
- 3 Mundu mailako osasun-krisialdi honen ondoren, adibide bat jartzearren, agerian geratu da zaintza arloa krisian dagoela. Orain arte, zaintzaile askori (ordainpekoak edo ez) eta mendeko pertsoneri eragiten zien krisi horrek. Gizartea, ordea, lozorroan zegoen, zaintzen gaituzten pertsonak zaintzeaz arduratu gabe.
- 4 Era berean, agerian geratu da edozein krisik modu negatiboan eragiten diela ongizatearen gizarteari eusten dioten zutabeei, krisiaren jatorria edozein izanik ere. Arrakala soziala, arrakala ekonomikoa eta lan-arrakala handitu egin dira, eta, ondorioz, desberdintasun sozialak ere areagotu egin dira. Hau da, osasun-pandemia baten ondorioak nozitzeaz gain, bidegabekeria sozialaren pandemia bat pairatzen ari gara, inoiz baino gehiago.
- 5 Gainera, urte eta erdiren ondoren, egoera honek gizarte indibidualista baterantz garamatzala ikus daiteke, 2020ko martxoan hasitako joeraren aurka: elkartasun-keinu ugari, ondasunen banaketa, emozioak, enpatia, onarpena... nagusi izan ziren orduan.

- 6 Lan arloari dagokionez, egia da pandemiak egoera dramatikoak eragin dizkiela, batez ere, enpresa txikiei eta autonomoei. Baina ezin dugu ahaztu enpresak handiek egoera hau baliatu dutela plantilla osoa berregituratzeko (Tubacex, ITP, etab.).
- 7 Gizartea berraktibatzeke unea da, pandemiaren eragin anestesikotik esnatzeke ordua. Oraindik ere lortzeke ditugun eskubide jakin batzuk aldarrikatzen laguntzen diguten herri-mugimenduak bultzatu behar ditugu, adibidez: pentsiodunen aldarrikapen politikoak, mugimendu feministarenak, gazteen aldarrikapenak eta emantzipatzeko dituzten zailtasunen ingurukoak, trantsizio ekologikoari buruzkoak, eredu energetikoaren krisiari buruzkoak, erronka demografikoak...
- 8 Hori dela eta, datozen bost urteetako (gutxienez) logika politikoak egungo testuinguru sozioekonomikoan oinarrituta egon behar du. Testuinguru imajinaezin honek osasun mailan astindu egin gaituen arren, zalantzarik gabe, mahai gainean jarri du berriro ere gizarte justu eta solidario bat lortzeke beharra.
- 9 Horregatik, EUSKO ALKARTASUNAREN sorrerako printzipio ideologikoak inoiz baino beharrezkoagoak dira orain.
- 10 Ezin da ukatu ultraeskuinak indarra hartu izanak egoera politiko kezkarria eragin duela, eta ditugun espazio eta aukera guztiak aprobetxatu behar ditugu ahal dugun instituzio guztietan eskuinak eta ultraeskuinak botererik lor ez dezaten. Ultra eskuina eta neo faxismoa harrotuta dabilzan honetan, ezin dugu epelkerian jausi; apatian dagoen jendea justizia sozialaren aldeko borrokara bultzatu behar dugu, beldurrari elkartasunez erantzun, eta injustiziarik demokraziaz eta askatasunez ihardetsi.
- 11 PPren aurreko gobernuekin alderatuta, aurrerapauso galantak eman dira. Azken adibidea, gutxiengo soldataren igoera, patronala negoziaketetatik irten bada ere, eta nola ez, Katalunia eta Espainiako gobernuen arteko Ertabaida mahaia.
- 12 Eszenatoki aldaketa hori ez bairik gabe ezkerreko indar subiranistek espainiar gobernuari ematen diogun babesari esker da. Argi dugu EH bildu bezala, estatuko beste alderdi subiranestekin batera, inoiz baino botere gehiago dugula inboluzioari aurre egiteko, politika aurrerakoia garatu eta bultzatzeko eta gehiengoarentzako onuragarri diren neurriak aurrera atera ahal izateko.
- 13 Zentzu honetan, independentismoak garrantzi handia izango du datozen urte hauetan. Ondo bideratuz gero, eta Kataluniako Mahaia izan daiteke honen adibide, erabakitzeke eskubidea egikaritzeke aukera izan daiteke. Horrez gain errespetatu behar dugu edozein forotan ideologia politiko guztiak sentitzen direla. Horregatik, funtsezkoa da Katalunian edozein elkarrizketa ematen denerako, arrazoi politikoengatik pertsonarik atxiloturik edo erbesteraturik ez geratzea. Horretarako, ez dugu baztertu behar indultua edo amnistia bezalako edozein bide.
- 14 Bestetik, Europar Batasunean pil pilean dagoen gai bat da, eta guk agenda hori betetzeko ahaleginak eta bi egingo ditugu. Baina, honetan ere garrantzitsua da aliantzak eta saireak sortzen eta indartzen jarraitzea. Horretan diardugu; bai estatu espainiarrean Llotja

de Mareko akordioaren baitan. Edo Frantziar estatuaren herri batzuek 1995ean erabaki zuten R&PS (Regiones y Pueblos Solidarios) federazioaren baitan: Korsika, Savoia, Alsazia, Okzitania, Britainia, Ipar-Catalunya eta Ipar-Euskal Herria. Euskal Herrian EUSKO ALKARTASUNA izan zen sortzailea beraien herriaren kultura, hizkuntza eta garapena politikoki babesteko. Orain EHBAI R&Psko begirale bilakatu da. 2022ko apirileko presidentzialetarako hautagai batzuekin hitzegin eta gero ekaineko hauteskunde hautagai propioak aurkeztea dugu asmo. Eta baita Europako estatu gabeko nazioekin batera, ALeren bitartez, non besteak beste, Eskoziako SNP edota Korsikako Femu á Corsica gobernuan dauden indarrak dauzkagun bidaide.

- 15 Hori dela eta, herritarrak erakartzeko egoera koiunturalak alde batera utzi eta honakoa da EUSKO ALKARTASUNAREN apustua: sozialdemokrazia eguneratuaren eta eraldatzailearen aldeko apustua berrestea, eta historian zehar herrien erabakitzeko eskubidea defendatu duten beste nazio batzuetako formazio politikoekin batzea ekintza internazionalistarako. Europar Batasunaren baitan, EAA (Europako Aliantza Askea) ikus daiteke batasun hori. Beste alderdi batzuekin batera, EUSKO ALKARTASUNAK eratu zuen EAA.
- 16 Bestetik, errefuxiatuen krisi humanitarioa nabarmentzen da nazioarteko politikaren erronka handien artean. Erabat globalizatua den mundu honetan, paradoxikoki, hormek zutik jarraitzen dute eta handitzen jarraitzen dute, mundua biztanle desiragarrien eta desiragarriak ez direnen artean banatzeko.
- 17 Errefuxiatuen krisiak argitara atera du aspaldiko gatazka bat, askoz ere sakonagoa dena. Gatazka hori lotuta dago azken hamarkadetan mundu mailako eta Europako organoek bultzatu dituzten migrazio-politika lotsagabe eta krudelekin. Akordio horien helburua inoiz ez da izan krisi humanitario dramatiko hori konpontzea, baizik eta elite oso konkretu batzuen interes geopolitiko eta ekonomikoei erantzutea.
- 18 EUSKO ALKARTASUNAK baztertu egiten du Europar Batasunaren jatorriko balioetatik (aniztasuna, tolerantzia, justizia, solidaritatea eta diskriminaziorik eza, kohesio ekonomikoa, kulturala eta soziala) gero eta gehiago urruntzen gaituen norabide hau. Europako indar aurrerakoi guztien lan eta konpromiso bateratuak indartu behar ditugu, eta agenda eta helburu berdinak ezarri behar ditugu, lortu nahi dugun Europa indartzeko, eskubideetan, askatasunetan eta tolerantzian oinarritua. Europar Batasunak ezin du ezikusiarena egin bere mugetatik kanpo gertatzen denaren aurrean, eta, noski, krisi sistemiko sakon honen aurrean, munduan duen paperaren gaineko hausnarketa egin behar du. Izan ere, une honetan Europara iristen ari dena urte askotako jarreraren ondorioa da: gerra eta desberdintasunen aurrean eskurik ez hartzea, oligarkia menderatzaileen politika ekonomikoen mende egotea, multinazional handien eta banku handiaren interesen arabera jokatzeko, eta nazioarteko politika alderrai eta insolidarioa egitea. Europa demokratizatze nazioarteko mugimendu aurrerakoi berri bat garatzeko ordua da, Europako mugetatik harago iritsiko dena.
- 19 Biztanleriaren zahartzeak edo etorkizuneko lanbideen aurrean hezkuntza mailan dagoen hutsuneak ere eragingo diote jasangarritasun ekonomikoari. Aldaketa demografiko horiek hainbat erronka dakartzate, hala nola: baliabide energetikoen muga, energia berriz-

tagarrien erabilera, uraren muga, erantzukizun sozial korporatiboa, gardentasuna, datu irekiak edo eredu ekonomiko kolaboratibo berriak.

- 20 Kapitalismoaren ahalmen suntsitzailea agerian uzten duten adibide ugari daude: klima-aldaketaren benetako mehatxua, baliabide naturalak agortzea, biodibertsitatearen galera, ozeanoetako plastiko kopurua eta abar luze bat. Horrek guztiak gero eta argiago erakusten digu eredu sozioekonomiko berri baterantz mugitzeko ordua iritsi dela. Izan ere, gizakia bera arriskuan dago eta bizitzeko moduko planeta bat utzi behar diegu ondorengoei; hortaz, arduraz jokatu behar dugu.
- 21 Islandia, Danimarka, Norvegia, Finlandia... erreferenteak dira. Ez dira superpotentzia ekonomikoak, ezta militarrek ere. Mundu mailako agertokian ez dute apenas pisurik, eta haien lurralde-testuinguruan ere ez dira oinarrizko zutabeak. Baina, orokorrean, bizi-kalitate handia dute.
- 22 Badakigu eredugarriak ez diren elementu ugari dituztela (energia nuklearra, erraustegiak, alkoholismoa, arrazakeriaren eta xenofobiaren hazkundera...), baina beste ezaugarri asko oso interesgarriak dira. Hauek dira herrialde horietako bereizgarri batzuk: kalitate handiko zerbitzu publikoak, hazkunde ekonomiko egonkorra (baina oso txikia), genero-berdintasuna eta familiako kontziliazioa, eta hezkuntza-sistema bikaina. Autosufizientzia, gazteen aldeko apustua, Estatuak ekonomian esku hartzea, errenten banaketa bidezkoa, langileak babestea, zerga altuak, ardurak araztea eta ustelkeriaren gaineko kontrola. Interesgarria da kontzeptu horietatik ideiak hartzea eta euskal gizarteari ematea, zuzenean edo, hala dagokionean, EH BILDUren bidez. Eredu horietan bezala, Eusko Alkartasuna zurruna izango da ustelkeriarekin, ordainsariak manipulatzearekin edo klientelismoarekin, defendatzen dugun proiektu kolektiboaren gainetik dagoen interes indibidualaren alde jardun zuen edozein afiliaturen edo jarraitzaileen aurrean.
- 23 Funtsean, bizi dugun une zirraragarri honen isla da nazioarteko testuingurua: iraultza digitala, kulturala, politikoa, ekonomikoa eta soziala. Aldaketa handien eta historiako garai berri baten aurrekaria izan daiteke une hau.
- 24 Eta Euskal Herriari ere eragiten diote gertakari eta errealtate horiek. Hori dela eta, ahalegin berezia egin behar dugu balio hauek ordezkatzeko: justizia soziala, gardentasuna eta demokrazia parte-hartzailea eta integratzailea, erabakiak hartzeko formula gisa. Modernotasunaren aldeko apustua egin behar dugu, gizartearen balio, prozedura eta joera berriekin konektatzeko. Gizarteak EH Bildun islatuta ikusi beharko du EUSKO ALKARTASUNAREN konpromisoa. Eta autogobernuaren arloko erronkak ardaztu behar ditugu. Estatuak egiturekin egin behar diegu aurre subiranotasun-erronka horiei, hau da, Kontzertu eta Itun ekonomikoaren bidez. Eta prozesu parte-hartzaile demokratiko bat diseinatzeko jarraitu behar dugu, herritar guztiak erabaki ahal izan dezaten zer estatus nahi duten eta zer subiranotasun mailaren aldeko apustua egiten duten. Guk, EUSKO ALKARTASUNAN, argi dugu: euskal errepublika independente bat eratu nahi dugu.
- 25 Zentzu horretan aurrera egiteko, ezinbestekoa da Espainiako estatuko indar zentralistak zer ahultasun-egoeratan dauden nabarmentzea. Ustelkeria sakonaren eta gaitasunik ezaren ondorioz, Espainiako estatua osatzen dugun (nahi edo ez) nazio guztiak dugun

eskubide demokratikoa ukatzeko diseinatutako egitura ekonomiko, politiko, mediatiko, judizial, sindikal eta enpresarial guztien sinesgarritasuna krisian dago gaur egun. Kataluniako herritarrek eta bertako instituzioek egoera hori inteligentziaz aztertzea erabaki dute, haien independentzia propioa lortzeko prozesu geldiezia martxan jartzeko.

- 26 Baina ez dezagun geure burua engainatu, Euskal Herrian lortu behar dugu gure prozesu demokratiko propioa geldiezia izatea, eta Euskal Herriaren autodeterminazio-eskubidea errespetatzen duten ezkerreko beste formazio batzuekin akordioak egitea erraz dezaketen irekiera demokratikoko aukerak arakatu behar baditugu ere, ez dugu ahaztu behar formazio horien zentralismoa eta logika zentripetua gailentzen dela gehienetan haien eztabaida eta jarrera politikoetan.
- 27 Gure herrialdeko herritarrek dute gure etorkizunaren giltza.

2. Eusko Alkartasunaren oinarri ideologikoak

- 28 EUSKO ALKARTASUNA sortu zenetik 35 urte igaro ondoren, haren sorkuntzari lotutako oinarri ideologikoei indarrean jarraitzen dute. Jendartea bera bezala, denboraren poderioz oinarriak eboluzionatuz joan dira eta eboluzionatzen jarraitu behar dute, jendartea eta politika bizitzen ari diren errealitatera eta aldaketetara egokituz.
- 29 EUSKO ALKARTASUNA euskal esparru nazionalako alderdi politiko sozialdemokrata da, eta Euskal Herriko lurralde-batasuna eta independentzia (Europar Batasunaren barruan Estatu propioa Euskal Errepublikak gisa eraikita), eta gizarte justuagoa eta solidarioagoa lortzea du helburu.
- 30 Alderdi abertzalea, demokratikoa, errepublikanoa, ezkertiar eraldatzailea, feminista, ekologista eta laikoa da. EUSKO ALKARTASUNAREN teoria eta praktika tradizio aurrerakoian eta pertsona guztien giza eskubideen, garapen jasangarriaren, justizia sozialaren, herritarren giza eskubideen defentsaren, feminismoaren, euskararen eta bakearen alde egindako lanean oinarritzen da.
- 31 EUSKO ALKARTASUNAK alderdi abertzale gisa dituen nortasun-ezaugarriak gure historian zehar zehaztu eta finkatu dira, eta honako hauek labur daitezke:
- a) Identitarioa eta zibikoa, Herri edo Nazioaren eskubideak bertako herritarren borondate demokratikoarekin uztartuz, inposizio dogmatikorik eta esentzialistik gabe.
 - b) Autodeterminazionista, erabaki demokratikoko tresna gisa, bere barne-antolamendu po-

litikari eta beste Herri, Nazio edo Estatuakiko harremanei dagokionez.

- c) Independentista, edozein Estaturekiko independentzia legal eta juridikoa izateari dagokionez.
- d) Estatalitate propioa, Errepublika gisa eratua, Europan txertatua, herritar, lurralde eta eratzeko ahalmen propioekin.
- e) Estatu bateratua lurraldeari dagokionez, Euskal Herria osatzen duten Lurralde guztiek osatua, herritarren erabakia bazter utzi gabe eta prozesuak eskatzen dituen urratsak eginez.
- f) Aurrerakoia, sozialdemokrata eta ezkertiar eraldatzailea. Jendarte libre eta solidarioa eraikitzea dugu xede, pertsona guztien benetako aukera-berdintasuna bermatuz eta herritarren giza eskubideen defentsa irmoa eginez. Balore hauek bai dira kohesioaren eta justizia sozialaren adierazpen gorenak.

2.1. Autodeterminazioa eta independentzia

- 32 Sortu zenetik EUSKO ALKARTASUNAK apustu argia eta irmoa egin du honako gai hauen alde:
 - Europar Estatu propio bat eratzea Euskal Errepublika gisa, autodeterminazio-eskubidea baliatuz.
 - Botere nazional indartsuz hornitutako herrialde-ikuskerara, zatiketa probintzialistaren aurrean, eta,
 - Pertsona guztientzako giza eskubideen defentsa, helburu politikoak lortzeko baldintza saihestezina izanik.
- 33 Frankismoaren ondoren eredu autonomikoa aurrera pauso garrantzitsua izan zen, baina 40 urte ondoren eredu hau agortuta dago, beraz, hau gainditzeko, prozesu soberania bat martxan jarri beharra dago.
- 34 Gaur egun, prozesu soberanista batean erabat murgilduta gaude. 2009. urtean, Lortu Arte eta Euskal Herria ezkerretik hitzarmenekin abiatu ginen, etapa ezberdinak gainditu ondoren EH Bildu eta EH Bai osatzera helduz. Euskal Herri soberano eta sozialki justua nahi dugun batura dira, hainbat alderdi, eragile sozial eta herritarrek osatutako mugimendu askatzaile eta eraldatzailea.
- 35 Ibilbide honetan pauso zuzenak eta okerrak eman dira, baina argi dugu akordio estrategiko hau gure herriaren independentzia eta justizia soziala bultzatuko duen tresna izan behar dela.
- 36 Helburu hauek lortzea ez dago gure esku soilik, horregatik, mundu mailan eta gehienbat Europa eta Estatu mailan gertatzen ari diren aldaketa geopolitikoak kontuan hartu behar ditugu. Eskozia eta Kataluniako prozesu independentistek Euskal Herrian jasaten ari garen gaur egungo blokeo egoera gainditzera bultzatu behar gaituzte. Egoera honek bi ezaugarri ditu:

■ Estatu espainiarrak eta frantsesak ez dute inoiz beren kabuz onartuko gure nazioa, eta horrek, nolabait ere, egungo lurralde-zatiketa eta esparru juridiko-politikoaren sendotzea eta finkatzea dakar.

■ Bestalde, prozesu independentista kataluniarrak Euskal Eskuin Unionistaren (EEU) jarrera horri lagundu egiten dio. Estatu espainiarrak Kataluniaren autonomia mehatxatuz egin duen erasoaren ondorioz, EEUk estatutuko konpetentziak defendatu besterik ez du egiten, alde bikotasuna beharrezkoa dela aitzakia gisa hartuz.

- 37 Esandakoa esan ondoren, gure herrira etorrita, EAJk Ibarretxe planaren baztertze ariketatik hona, erakutsi digu 78. Erregimenarekin bukatzeko prest ez dagoela. Haratago, EEU 78. Erregimenaren ezinbesteko pieza da, beraz, EUSKO ALKARTASUNAK, EH Bilduren baitan, 78. erregimenaren haustura bultzatu behar du. Bultzatu eta lidergoa hartu. Euskal Herri soberanoa eta soziala eratu nahi duen erreferentzia bihurtu behar gara.
- 38 Honetarako prest gaude beste indar politikoekin aliantzak sustatzeko. Hala eta guztiz ere, ez diogu uko egiten herriz herri indar aurrerakoien arteko batasuna antolatzeari, justizia sozialeko politikan hobekuntzak ezarri ahal izateko. Horretarako, alderdi konbentzionaletatik kanpoko elkarte politikoak ere izango ditugu, gure jardun politikoaren printzipioak jasoko dituztenak.

2.2. Printzipio demokratikoa

- 39 EUSKO ALKARTASUNA alderdiak ez die inoiz uko egin Euskal Herriak mendez mende izan dituen eskubide historikoei eta, hain justu, horregatik sortu zenetik defendatu izan du herrien autodeterminazio-eskubidea.
- 40 Herrien autodeterminazio-eskubidea egungo nazioarteko zuzenbidearen oinarritzko printzipioetako bat den arren, eskubide hori baliatzeko garaian hamaika oztopo izaten dira, batik bat, Estatu finkatuen aldetik; izan ere, eskubide honen aplikazio praktikoa euren egoera ekonomikorako eta politikorako arriskutsua izan daitekeela uste baitute.
- 41 Egoera horren aurrean, EUSKO ALKARTASUNAK “Printzipio demokratikoa” berreskuratu zuen Euskal Herriak bizi duen gatazka politikoa konpontzeko formulatzen.
- 42 Ikuspegi praktikotik begiratuta, printzipio demokratikoaren aplikazioak Estatuek eta Nazioarteko Komunitateak autodeterminazio-eskubidea onartzeko jartzen dituzten oztopo nagusiak kontuan ez hartzea ahalbidetzen du: legezko testu politikoetan esanbidez ez onartzea, Herria garelako ukatzea, eta alde aurretik Nazioa osatu izana.
- 43 Printzipio hau nazionalismo zibikoan oinarritzen da, eta ez du eskatzen alde aurretik Estatu edo Nazioa osatu izana, ezta hori aintzat hartu izana ere. Nahikoa da herritarrek hartutako erabaki demokratikoa. Bestalde, Konstituzio demokratiko guztien oinarritzko printzipioa denez, ez da beharrezkoa esanbidez formulatzea edo aintzat hartzea, eta printzipio hori errespetatzen bada bide demokratikoak irekitzeko aukera ematen du Europar Batasunaren baitan gure estatus politikoa erabakitzeko. Baikorrak gara Quebeceko esperientziaren ondoren, atea ireki baita estaturik gabeko nazioek (hala nola Eskoziak, Kataluniak eta Euskal Herriak) printzipio demokratikoa formulatzearen bidez independentzia lortzeko.

- 44 Azken batean, EUSKO ALKARTASUNAK, Eskubide Historikoez eta Autodeterminazio Eskubideaz gain, Printzipio Demokratikoa biltzen du esanbidez bere ideia politikoen artean.

2.3. Sozialdemokrazia

- 45 Sozioekonomikoki, EUSKO ALKARTASUNA ezkerreko alderdia da, sozialdemokrazia eraldatzailearen esparruan kokatuz. Arlo honetan, justizia soziala bere ekimen politikoaren oinarri garrantzitsua da, Euskal Herrian nahiz nazioartean. Politika hauek guztiek, Euskal Herriko, Estatuko eta Europako zentro-eskuin indarretatik bereizten gaituzte.
- 46 Sozialdemokraziak, norbanakoaren eskubide ekonomikoak gizartearen eskubide ekonomikoekin uztartu nahi ditu, autodeterminazioaren bitartez, norbanako eskubide politikoak herrien eskubide politikoekin uztartzen diren bezala.
- 47 Autodeterminazioak eta Sozialdemokraziak inspirazio-iturri beretik edaten dute: eskubide indibidualak —sozialak, ekonomikoak eta politikoak— jendarte- eta herritar-taldeetara hedatzea.
- 48 Autodeterminazioaren eta sozialdemokraziaren arteko lotura horrek koherentzia ematen die gure oinarri ideologikoei. Autodeterminazioa exijitzen dugu, eta burujabetza nazio gisa erabat egikaritzea eskatzen dugu, herritar burujabeek osatutako nazio gisa, askatasun zibiletan burujabe eta eskubide ekonomiko eta sozialetan ere burujabe. Baina garapen-eredu berri baten bidez soilik izango dugu Euskal Herriko gizon eta emakumeok erabateko burujabetza baliatzeko aukera, produkzio-harreman berriak, botere-harreman berriak eta bizimodu berriak bilduko dituen eredu baten bidez.
- 49 Maiz adierazi dugun bezala, gure asmoa independentzia da, bai, baina, gure identitate nazional eta kulturalaren bidezko defentsagatik ez ezik, independentzia delako Estatu bat —Ongizatearen Estatu— osatzeko ezinbesteko tresna edo oinarria. Horrek jendarte bidezkoagoa eta kohesionatuagoa ekarriko du berekin, eta hartan biziko diren herritar guztiek aukera berberak edukiko dituzte beren bizi-kalitatea eta aukera-berdintasuna bermatuko dituzten zerbitzuetara iristeko.
- 50 Sozialdemokrazia hitzak, berak, XX. mendearen hasieran eta 2. Gerra Handiaren ostean lortu zuen zilegitasuna galdu duelakoan gaude, batez ere, azken hamarkadetan izan duen bilakaera neoliberalagatik. Felipe Gonzalez, Blair, Schroeder, eta orokorrean, Europako alderdi sozialista tradizionalen jokabideak, neoliberalismo basatiaren osagarri edo, are okerrago, zurtzaile bezala agertu baitira. Sistema sozioekonomiko justuago baten oinarriak finkatu edo proposatu beharrian, pairatzen dugun kapitalismo bihozgabe eta basatiaren zutabe gisa jokatuz, jatorrizko balioen karikatura bat izateraino eta progresismoaren esanahia hustuz. EUSKO ALKARTASUNAK proposatzen duen sozialdemokrazia eraldatzaileak, paper garrantzitsu bat bete beharra du. Egungo egoeratik abiatuz, beste sistema sozioekonomiko batera eramango gaituen oinarri eta printzipioak proposatuz.

3. Euskal jendartea eta balioak

3.1. Aniztasuna eta kulturartekotasuna

- 51 Euskal nazioaren existentzia ukatzen dutenen diskurtsoan ohikoa da euskal jendartea anitza dela azpimarratzea, identitate eta jatorri desberdinen batura dela
- 52 Behin onartuta euskal gizartearen aniztasuna, jatorri eta kultura desberdinekin, landu beharreko balioa da. Lehentasunezkoa da beste jatorri bateko pertsonak gizarteratzeko neurriak hartzea, harreratik hasita erabat gizarteratu arte. Aurrera egin behar dugu kultura anitzeko gizarte batetik – non kultura desberdinak elkarrekin bizi diren, elkarrekin harremanik izan gabe – kulturarteko gizarte batera, non kultura horiek elkarri eragiten dioten eta elkar aberasten duten. Hau da, aniztasunaren kudeaketa norabide bikoa izan behar da. Kultura arteko topaguneak sortzeko lan egin behar dugu, bakoitzaren sentsibilitateak eta kide izatearen sentimenduak errespetatuko dituztenak, asimilazioan erori gabe. Alde horretatik, azpimarratu behar da euskarak eta euskal kulturak eginkizun kohesionatzailea eta segregatzailea izan behar dutela.
- 53 Euskal jendartearen aniztasuna guztiz onartuta egonik, premiazkoa da beste jatorri batzuk dauzkaten herritarrak integratzeko neurriak hartzea. Gure berezitasunak zorrotz errespetatuz gure kulturara eta gure tesi politiko eta sozialetara erakarri behar ditugu.
- 54 Egiatzapen objektibo hori oinarritzat hartuz, hain zuzen ere, EUSKO ALKARTASUNAK defendatzen du euskal jendarteak baduela bere antolaketa politikoa erabakitzekeo printzipio demokratikoa baliatzeko eskubidea.
- 55 Herritartasun unibertsalaren kontzeptuan oinarrituta, Euskal Herrian bizi den edozein pertsona, haren jatorria edozein izanik ere, euskal herriaren eskubideen jabe izango da, eta Euskal Herriaren oraingo eta etorkizuneko erabaki guztietan parte hartzeko eskubidea izango du. Eta EUSKO ALKARTASUNAREN erabaki horien ondorioz independentzia

badator, herritarrek, euskal nazionalitatearekin batera, beren nazionalitatea lortzeko aukera ere izango dute, nazioarteko egungo testuinguruan hainbat Estatutan dagoeneko indarrean dagoen nazionalitate bikoitzeko estatusaren bitartez.

3.2. Gatazka armatuaren ondorengo bakegintza

- 56 Bizikidetza askotan darabilgun hitza da Euskal Herrian, baina izaten baino askoz errazagoa da esaten. Belaunalditan zehar pairatzen dugun gatazka politikoak – bi estaturen artean zatitutako lurraldea, 3 administrazio ezberdinetan kudeatutako gizartea, geroz eta heterogeneoagoa den herritargoa- bortizkerian bizitzera eraman gaitu; Estatu bortizkeria, ETA zein indar militarren bortizkeria, bortizkeria instituzionala...
- 57 Bortizkeria guzti honekin amaitu eta ezberdinen arteko bizikidetza zintzoa bultzatzea da EUSKO ALKARTASUNAREN printzipioetako bat, betidanik landu izan duguna. Bakegintza lantzea asmo zuten ekimen guztietan parte hartu izan dugu, bultzatzaile izan ez bagara, eta horretan ere jarraituko dugu hurrengo urteetan. Bizikidetza ez baita egun batetik bestera lortuko, egunero eta etengabe elikatzen, lantzen eta sendotzen den gaia baita.
- 58 Zentzu honetan, 2011ko urria dakargu gogora lehenik. Aieteko konferentzian adostu ziren 5 puntuetatik bakarra gauzatu da 10 urteren ostean, hau da, ETAK bere jarduera armatua behin betiko utzi du. Ez hori bakarrik, ETA 2018an desegin zen guztiz, bake artisaunen eta euskal herritar askoren inplikazioari esker. Erakundeak ez ziren prozesu honetan inplikatu, eta oraindik ere beraien esku dagoena egiteke dute. EUSKO ALKARTASUNAK bere esku dituen gailu guztiak erabiliko ditu erakundeek euskal jendartearen borondatea onar dezaten. Izan ere, behin betiko normalizazioa iritsiko da marko juridiko-politiko eta euskal jendartearen borondate politikoa bat datozenean. Ordezkaritza politiko horrek, inolako betorik gabe elkarrizketa eta adostasunaren bitartez erabakitzen duena izango da normalizazioa.
- 59 Gobernu, erakunde zein alderdi ezberdinak inplikatu behar ditugu bakegintzan eta bizikidetzan. Oraindik ere garaitu eta garaileen markoak dirau errelato nagusietan, baina frogatu dugu honek ez dakarrela konponbiderik. Are gehiago, salbuespen-neurriz betetako legedia, eta espainiar Audientzia Nazionalak hartzen dituen erabakiek gehiago dute mendekutik edo etekin propagandistikoa lortzetik giza eskubideak defendatzetik baino.
- 60 Bortizkeria hauen biktima guztiei justizia, aitortza eta erreparazioa eskaintzea ere ezinbestekoa da. EUSKO ALKARTASUNA beti egon da biktima guztiekin, eta hala egoten jarraitzen dugu, orain EH Bildurekin batera. Tematuko gara alderdi guztiek berdina egin dezaten; “nire biktimak” eta “zure biktimak” parametrotik, “gure biktimak” aitortuko dituen memoria zabala landuko dugu. Presoak ere salbuespen egoera honetako biktima gisa hartzen ditugu, hauen egoera eta eskubide urraketak jendarteko ordezkari guztiek aintzat har ditzaten.
- 61 Euskal jendarte zibilak erakutsi du behin eta berriz Euskal Herria bakegilea dela, errebantxa-asmorik gabekoa, eta bakean eta normaltasunean bizi nahi duela. Horretarako egon daitezkeen oztopoak elkarrizketa zintzoaren bitartez eta gehiengoaren erabakiak onartuz gutxiengoa errespetatzen duen bitartean gauzatu daitezkeela. EUSKO ALKARTASUNAK

jarraituko du bakegile aktibo izaten, alderdien arteko zubi izaten, eta jendarte zibilaren borondatearen ordezkari izaten dagoen erakunde, aliantza eta indargune ezberdinetan; eskubide guztiak pertsona guztientzat defendatzen.

3.3. Feminismoa

- 62 Esan dugun bezala euskal jendartea anitza da, anitza bere identitate eta jatorrian, eta anitza da baita orientazio sexual eta genero identitatean.
- 63 Indarkeria matxista gizon eta emakumeen arteko desberdintasun adierazpenik handiena da oraindik ere. Emakumeek diskriminazioa pairatzen dute beren bizitzako alderdi guztietan, eta eraso matxistak jasaten dituzte soilik emakume izateagatik. Gizartearen % 50ek erasoak eta egiturazko desberdintasun-egoerak pairatzen ditu bere garaian, besteak beste langabezia tasa altuagoagatik, nagusiki ugalketarekin lotutako arrazoiengatik; gizonen eta emakumeen arteko soldata ezberdintasuna handia da; emakumeen ikusgarritasuna txikiagoa da zientzian, ez dago parekotasunik ordezkari-tza-eremuetan, pensio baxuagoak dituzte, lan-jardunaldi partzialak dituzten langile gehienak emakumeak direlako; kulturaren arloan emakumea objektu estereotipatutzat jotzen da maiz, etab. Horra hor gure gizartean dagoen emakumeen aurkako diskriminazioaren zenbait adibide. Hala ere, indarkeria matxistaren gertaera latzenak hilketa matxistak dira; gaur egun, gizonen emakumeak hiltzen jarraitzen dute soilik emakume izateagatik. Honen argitan, EUSKO ALKARTASUNAREN pentsatzen dugu FEMINISMOA eta emakumeen defentsa politika lehentasuneko gaiak direla, emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunean eta desberdintasunen amaieran oinarritutako gizarte berri bat eraikitzearen alde eginez.
- 64 EUSKO ALKARTASUNAREN ustez, ezinbestekoa da heteropatriarkatuarenak ez bezalako harremanak diseinatzen jarraitzea, eta berdintasunean eta giza eskubideetan oinarritutako gizarte berri bat sortzea.
- 65 Horren arabera, hurrengo konpromisoak hartu ditugu:
- Feminismoaren defentsa, emakumeek euren gorputz osoaren erabateko kontrola izatea barne (sexualitate askea, abortu askea...), gizartearen kristalezko sabaiak haustea eta, batez ere, diskriminazio positiboko politiken defentsa proaktiboa egitea.
 - Erakundearen barruan norabide horretan lanean jarraituko dugu, gizartean gertatzea nahi dugun aldaketarekiko koherentziaz jokatuta. Berdintasun-plan bat ezarriko dugu, gurea adierazpen matxistarik gabeko erakundea izateko zenbait ekintzak burutzeko asmoz.
 - Ikuspegi feministari eutsiko diogu jarduera politikotik eratorritako planteamendu bakoitzean.

3.4. LGTBIQ. Identitate aniztasunaz harro

- 66 Homofobia eta tranfobia errotik desagerrarazi behar dira justizia sozialean oinarritutako gizarte batean berdintasuna lortzeko. Azken urteotan, ugaritu egin dira LGTBIQ+ kolektiboko kideen aurkako erasoak eta EAEn jada gorroto-delituen bigarren kausa dira, eraso xenofoboen atzetik. Heteronormatik kanpo dauden pertsonen aurkako gorrotoa pizten eta sustatzen duten eskuin muturreko alderdien igoera dela-eta, besteak beste.
- 67 Aspaldi LGTBIQ+ kolektiboaren aldarrikapenak pertsonen sexu-joerarekin eta nor maitatu eta norekin oheratu erabakitzeko askatasunarekin lotuago zeuden arren, azkenaldian nork bere identitatea aukeratzeko eta aske izateko aldarrikapenak ere batu zaizkie. Gizarte heteropatriarkal batean ezarritako ereduak ez lukete inor baztertze, inork aukera gutxiago izateko, inork erasorik jasateko edota inor hiltzeko aitzakia izan behar.
- 68 EAE aitzindaria izan zen transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko bere legea onartzen, baina gaur egun zaharkituta dago beste lege autonomo batzuekin alderatuta. Nafarroako Foru Komunitateak Berdintasun Sozialari buruzko Lege bat du, lau alderdiek onartua, nahiz eta talde sozialek zalantzan jartzen duten lege horren betetze-maila. Bestalde, Iruñea oso erreferentea izan da EH Bilduk ezarritako LGTBI+ Harrotu zentroarekin. Proiektu hori UPNren murrizketengatik makaltzen ari da orain. EAE da, Ceuta eta Melilla hiri autonomoekin batera, lege bat ez duen erkidego bakarra, eta berau ez dago onartuta, ezta erakunde-prestaketako fasean ere. Horregatik, EAK lege hori eskatzen duten LGTBI+ elkarten ekimenari ongi etorria ematen dio.
- 69 EUSKO ALKARTASUNAK bere egiten ditu LGTBIQ+ pertsonen aldarrikapenak, eta adierazpen homofobo eta transfoboak, ezaugarri sexualengatik, identitate edo adierazpen sexualengatik edo generoagatik, sexu-orientazioagatik edo keinu-patroiagatik edozein motatako indarkeria edo diskriminazioa salatze konpromisoa hartzen du.
- 70 Lanean dihardugu pertsona guztiak aske bizi ahal diren eta pertsonen identitatea eta aukera sexu-joera bazterkeria edota diskriminazioa pairatzeko arrazoia ez den gizarte bat lortzeko. Pertsona guztientzako eskubide guztiak aldarrikatzen jarraitzeko konpromiso sendoa dugu.

3.5. Kohesioa, nortasun-ezaugarria

- 71 Euskal Herriaren historian protagonismo handia izan dute mota guztietako elkartze-esperientziek. Landa-munduan sortu zen lankidetzakulturak oso garapen garrantzitsua izan zuen industria- eta zerbitzu-sektoreetan euskal kooperatiba-sarearen sorkuntzarekin. Kooperatiben asoziazionismoak ere garrantzi handia izan zuen irakaskuntzaren munduan, euskal kulturaren garapenari mugak ezartzen zitzaizkion garai batean ikastolen mugimendua martxan jarri baitzuten.
- 72 Auzolanaren jatorrizko espirtu horrek gure inguruko jendarteetan baino ezberdintasun sozial gutxiago dituen jendarte bat eratzen lagundu duten eremuak asko eta askotari-

koak dira. Gaur egun, autogobernu erlatiboko testuinguru honetan, non ongizate-estatu eratzten duten hainbat elementu garrantzitsu euskal botere publikoek administratzen dituzten, beste administrazio-lurralde batzuekiko aldeak ere nabarmenak dira. Horri dagokionez, nabarmentzekoa da EUSKO ALKARTASUNAREN ekarpen historikoa, erakundeen gobernu-jarreretatik zein oposiziotik abiatuta, hezkuntzan, herritarren eskubide sozialen babesean edo ingurumenean, batzuk aipatzearen, lortutako aurrerapenetan.

- 73 Hala eta guztiz ere, azterlan fidagarriek erakusten dutenez, egungo erabateko krisi-egoerara (ekonomikoa, ekologikoa, soziala, eta nola ez, osasun eta zaintzen arlokoa) eramán gaituzten sistema kapitalistaren logikak eta garapenak, eta European eta gure inguruan erreazio moduan gauzatu diren politika publikoek, eragin handia izan dute arrakalaren sakontzean, eta baita Euskal Herrian ere. Gaur egun desberdintasun handiagoko ingurune batean bizi gara, eta gure historian lehen aldiz, belaunaldi batek bere aurreko belaunaldiarekin konparatuta hobeto bizitzeko dituen itzaropenak arriskuan daude.
- 74 Euskal Herriaren orainaldiak eta etorkizunak erronka eta mehatxu handiak dituzte. Gure egitura ekonomikoaren, zerga-sistemaren, demografiaren eta abarren bideragarritasunari eta kaudimenari buruzko erronka eta mehatxu zuzenak, eta gu mundu globalizatu baten parte izatearen ondorio diren erronka eta mehatxuek, mundu globalizatu horretan gure inguruetik kanpo hartzen diren erabakiek eta egiten diren ekintzek guregan eragina dute.
- 75 Horri lotuta hainbat sorburu dituzten krisi humanitarioek ekarri dituzten migrazio-mugimenduen errealtate berria oso garrantzitsua da, eta harrera egiteko ahalmena duten herrialdeek erantzun solidarioa eman behar dute, baita gure herriak ere. Azkenaldian gainera ugaritzen ari dira mezu arrazista eta xenofoboak, ULTRA ESKUINEN EKIMENEZ jendartean gero eta barneratuago dauden mezu faxistak, eta inolaz ere ezin ditugunak onartu.
- 76 Gure esku dauden medio guztiak jarri behar dira arrazakeria eta xenofobiaren aurka borrokatzeko, eta garbi geratu beharko litzateke gurea harrera herria dela.
- 77 Testuinguru horretan, beste edozein kontsiderazioren gainetik, EUSKO ALKARTASUNAK adierazten du jendarte-kohesio handiagoa lortzea uko egin ezinezko helburua dela, eta erronka eta mehatxu horiei aurre egin nahi dien edozein soluziok helburu hori kontuan izan beharko du. Jendarte barne-hartzaileagoa eta solidarioagoa eraikitzea posible da Euskal Herrian. Baina posible ez ezik, jendarte duinago bati bide emateko helburua Euskal Herrian antolamendu politiko subiranoa izateko egiten dugun erreklamazioa justifikatzen duena ere bada; pobrezia eta jendarte-bazterkeria izatea –pobrezia larria, batik batik– da kohesio sozialaren aurka egin daitekeen eraso bortitzena. Herritarren ehuneko haundia sozialki guztiz bidegabea den egoera horretan bizi da, eta horregatik lehentasunez heldu behar diogu gure ekintza politikoaren bitartez.

3.6. Euskara

- 78 Euskara, “lingua navarrorum”, komunikaziorako tresna bat baino gehiago da, eta are gehiago hizkuntza-, kultura- eta historia-althorra, hiru erkidegoetan bizi garen herritar guztien ondarea (EAE, Nafarroako Foru Komunitatea eta Euskal Autonomia Erkidegoa edo Pays Basque kolektiboa), eta, gainera, hizkuntza horrek identifikatzen gaitu nazio gisa, eta gure lurraldea definitzen du, Euskal Herria baita “euskararen herria”. Muga bat izan beharrean, gure kolektibitate nazionala zabaldu egiten du, euskaraz hitz egiteagatik euskaldunak edo euskaldunak diren munduko edozein lekutako herritar guztiengana.
- 79 Euskara da Euskal Herriko berezko hizkuntza, horrek egiten gaitu euskaldun eta horrek adierazten du hobekien Euskal Herria zer den.
- 80 EUSKO ALKARTASUNArentzat euskarak ardatza izan behar du, eta hizkuntza politika berria gauzatzen jarraitu behar dugu. EUSKO ALKARTASUNAn euskarari dagokionez dugun irizpide nagusia honako hau da: erabiltzea, eragitea eta laguntzea, Euskal Herria euskalduna izan dadin, euskara normaltasunez bizi dadin.
- 81 Helburua da euskara modu orekatu, egoki eta eraginkorrean erabiltzea, barne zein kanpo mailan. Euskarak, beraz, politika guztietan irizpide izan behar du.
- 82 1982an EAEn onartutako Euskararen Legea zaharkituta geratu da, eta lege berri bat aldarrikatu behar dugu. Lege berriak egungo errealitate soziolinguistikolari erantzun behar dio, kontuan hartuz, besteak beste, teknologia berriak, azken urteotan izugarri garatu direnak.
- 83 Euskararen egoera labur-labur azaldu beharko balitz, agian esan genezake ezagutzari dagokionez aurrera egin duela azken hamarkadetan, baina atzerakada bat izan dela haren erabileran; beraz, etorkizuna arriskuan dagoela esan dezakegu. Ezin da ukatu haren aurrerapena. Esan daiteke aurrera egin dugula haren ezagutzan, baina, zalantzarik gabe, ez da nahikoa, ez eta gauza bera geografia- eta funtzio-eremu guztietan ere.
- 84 EUSKO ALKARTASUNAk, Euskal Herria nazio gisa ulertzen dugun neurrian, eta euskara bera gure nazioaren ezinbesteko osagaitzat jotzen dugun neurrian, badugu hor arrazoi indartsua hizkuntzaren alde egiteko. Baina horretaz gain, euskara kohesiorako tresna ere iruditzen zaigu, eta kultur aberastasuna, bestelako gizarte bat eraikitzeke balioa, aniztasunak munduari ematen dion koloreari eusteko baliabidea, gure aurrekoek utzi ziguten eta modurik naturalenean gorde eta iraunarazi beharko genukeen hizkuntza, elkarrekin komunikatzeko bide praktikoa bat, Euskal Herriko lurralde ezberdinen arteko harremanetarako bitartekoa, hemen ez bada beste inon biziko ez den hizkuntza...
- 85 Hasteko, euskara, bertako hizkuntza sustatzea, eta, zalantzarik gabe, herritarren hizkuntza eskubideen bermea, erakunde publikoen ardura da. Haien nahitaezko egitekoa, ezinbestean erantzun beharrekoa. Euskararen normalizazioak, eta hizkuntza eskubideen bermeak, erakunde publikoen inplikazioa, ahalegina, konpromisoa eta lana eskatzen dute eta, bidenabar esanda, orain arterainokoa baino intentsitate eta maila askoaz ere handiagoan, aldeak alde.

- 86 Hezkuntzan, Euskal Herri osoko ikasle guztiei oinarrizko ikasketak amaitzeko eskatu behar diegu, euskara ere ondo ezagutu eta hitz eginez. Era berean, Euskal Herri osoko administrazio publikoak ere euskaldunak izan beharko dute maila eta eremu guztietan.
- 87 Titulartasun publikoko komunikabideek, EITBk, funtsezko eginkizuna izan behar dute euskalduntze-prozesuan. Testuinguru teknologiko batean titulartasun publikoko komunikabideek euskararen aldeko apustua egin behar dute, eta, pixkanaka, aurrera egin behar dute, komunikabide publikoek eskaintza osoa euskaraz lortu arte.
- 88 Azken urteotan Nafarroako Gobernuak UPNren eskuetan eta legegintzaldi honetan PSN-rekin hizkuntza-politikan egindako bideak ez ditu gauzak erraztu. Erakundeetatik jasotzen zituzten diru-laguntzak murrizten edo desagertzen ari direla ikusita, euskal kultura-eragileek eta hedabideak arriskuan ikusten dituzte haien lana eta etorkizuna. Eta ezin dugu onartu.
- 89 Nafarroa osoan derrigorrezko eta ondorengo irakaskuntza publikoan, euskaraz ikasteko aukera eskaini behar da. Hezkuntza sistemak bermatu beharko du ikasketak bukatzeko garaian ikasle guztiek euskararen gutxieneko ezagutza izanen dutela.
- 90 Hemen beharrezkoa da euskararen lege berria onartzea. Lege berriak emanen dio euskarri juridiko egokia nafar guztion ondarea den euskara normalizatzeko eta sustatzeko egin beharreko hizkuntza politikari.
- 91 Ipar Euskal Herrian, Euskal Elkargoa/Euskal Herriko Mankomunitatea oraindik existitzen da, eta koofizialtasun-plan bat bozkatu da euskararako (Gascón/Occitano). Euskal erakunde honek Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa biltzen ditu. Hiru lurralde horiek batera onartzen dituen lehen entitatea da.
- 92 Eusko Elkargoak euskarari eskainitako aurrekontua handitu du. Horrek aukera ematen du hizkuntza-teknikariak kontratatzeko testu elebidun batzuk sortzeko, Iparraldea Parisen ordezkatzeko eta hizkuntza-arazo batzuk eztabaidatzeko.
- 93 Beraz, euskara euskaldun guztiok batzen gaituen hizkuntza izatearen aldeko apustua egiten jarraitu behar du EUSKO ALKARTASUNAK. Gure hizkuntzaren egoera da pozgarria, are gehiago, atzerakada bat dago haren erabileran, eta egoera horri buelta emateko, ezinbestekoa da maila guztietako erakunde guztiak presionatzea, euskara gai nagusi eta zeharkako bat izan dadin, eta, beraz, benetako ekintzak praktikan jar daitezen, gure alderdiak hasieratik aldarrikatu duenez, Euskal Herria Euskararen Herria izan dadin.

3.7. Hezkuntza

- 94 Hezkuntza sistema ongizate estatuaren ezinbesteko tresna bat da jendarte justuago eta hobeagoa lortzeko. Aukera berdintasunean, parekidetasunean, ekitatean, laiktasunean, inklusibitatean, feminismoan edota klima larrialdiaren aurrean urratsak emateko hezkuntza-sistema publiko, unibertsal eta doakoa, 0 urtetik unibertsitatera doana, beharrezkoa dugu. Euskal Herriaren kasuan, gainera, euskara zein euskal kulturaren transmisioa ziurtatzeko, Euskal Hezkuntza Sistema Publiko eta Burujabea sortu behar dugu.
- 95 Ezer baino lehen, urteetan eta urteetan EUSKO ALKARTASUNAKo gizon eta emakumeek egin duten lana euskarazko irakaskuntza sare publikoan abiatzeko edo irakasleen soldata igotzeko edo euskal curriculuma ezartzeko edo kompetentzietako irakaskuntza bultzatzeko... ontzat eman eta balorean jarri nahi dugu.
- 96 Orain, berriz, pragmatismotik, daukagunetik abiatuz eta Euskal Herriak pairatzen duen zatiketa administratiboa oso ondo jakinda, beste jauzi kualitatibo bat eman behar dugu.
- 97 Izen ere, ezin dugu ahaztu azken 8-10 urteotan irakaskuntza ez unibertsitarioan gertatzen ari den atzerakada, bai ikaskuntza parametroetan zein euskararen jabekuntzan eta erabileran. Egoera larri honi gehitu behar diogu Frantziako Epaitegi Konstituzionalak Iparraldean ireki duen segurtasun juridiko eza, ez baitago bat ere argi zer gertatuko den euskarazko murgiltze ereduekin.
- 98 Era berean, nahiz eta unibertsitate publikoa indartzeko Nafarroan urratsak eman diren, adibidez, Medikuntza gradua ezarriz, EAEko administrazioak sare pribatua nabarmen bultzatzen ari dira, adibidez, Deustuko Unibertsitatean Medikuntza gradua eskainiz eta Gasteizen EUNEIZ unibertsitate pribatu berria baimenduz.
- 99 Hori dela eta, datozen urteei begira EUSKO ALKARTASUNAK bultzatzen dituen erronka zehatzak hauek dira:
- Euskal Hezkuntza Sistema Publiko eta Burujabearen aldeko apustua, doakoa eta unibertsala izango dena.
 - Jaiotze tasaren jaitiera baliatuz, ratioak jaisteko aukera ezin hobea baliatzeko eskatzen dugu, hezkuntza kalitatea hobetzeko.
 - Irakaskuntza kalitatea hobetzen jarraitzeko, ezinbesteko neurria da irakasle taldeen egonkortasuna eta, beraz, eskola publikoaren irakasleen behin-behinekotasuna murriztearen aldeko aldarria egiten dugu
 - EAERI begira, Hezkuntza Lege berri bat eskatzen dugu non hezkuntza ereduak gainditzen diren eta murgiltze eredu malgua ezarriko den. Lege horrek publiko-irakaskuntzaren dikotomia gainditzeko ere baliagarria izan behar du, inklusibitatea ardatz izanik eta getoak desagerraraziz. Era berean, Hezkuntza Sailaren papera indartu egin behar da, Madrilen esku dauden hezkuntza eskumen guztiak berreskuratuz eta ikastetxeen autonomia pedagogikoa handituz.

- Nafarroari dagokionez, estatu osoan huts egin duen PAI ereduaren kontra agertzen gara eta euskarazko murgiltze ereduia Nafarroa osora zabaltzeko lan egingo dugu.
- Iparraldean, Frantziako Konstituzio Kontseiluak hizkuntza gutxituak babesteko eta promozionatzeko legea, partzialki bada ere, atzera bota ondoren, murgiltze ereduaren aldeko apustu argia egiten dugu eta babes juridiko osoa aldarrikatzen dugu.
- Bukatzeko, Trebiñu barrendegiari dagokionez, nahiz eta Ikastolei esker Argantzunen euskaraz ikastea posible den, Trebiñu konderrian sare publikoak ez du ahalbidetzen. Beraz, aldarria argia da, Trebiñuko udalerrian eskola publikoak euskarazko irakaskuntza eskaini ahal izatea.

3.8. Trantsizio ekologikoa, agroekologia, biodibertsitatea, ekonomia zirkularra

- 100 Planeta mailako Krisi sozioekologiko itzel baten aurrean gaude. Egungo sistema sozioekonomikoak kale egin du eta erabaki ausartak eta egiturazkoak hartzeke, ondorengo belaunaldiei, hots gure seme alabei eta ilobei, utziko diegun mundua beldurgarria bihurtu daiteke.
- 101 Egoeraren diagnosia eginda dago. Zientzialariek, jada, mezu sendo bezain ikaragarriak helarazten dizkigute. Ezin dugu hazkunde mugagabearen eta kapitalismo basatiaren menpe utzi ondorengoan etorkizuna, bizigarri izango den bizitza duina izango bada. Era berean, giza jarduerak sortutako isurien ondorioz, tenperatura globala industriaurreko mailen gainera dago gaur egun, eta iragarpenen arabera, mende honetan 3º C-ko mugara hurbilduko gara, eta horrekin batera, klimaren aldaketak ugariak eta gero eta muturrekoagoak izango dira. Beraz, Kontxa, Zumaia, Lekeitio, Ea eta Aiako hondartzen % 70 baino gehiago desagertu egingo dira, horietako batzuk erabat, eta Getxo, Erandio, Trapagaran, Bakio eta Bilbo bezalako hiri-eremuak Bizkaian; eta Zumaian, Zarautzen, Irunen eta Hondarribian, Gipuzkoan; uholdeak izango dira datozen 80 urteetan.
- 102 Europar Batasunak 2030erako New Green Deal-aren baitan, eta FIT FOR 55 programak, hainbat helburu jarri ditu 2030/50 epealdietarako. Hemendik eta 2030era bitartean EBn berotegi-efektuko gasen emisioak % 55 murrizteko. Besteak beste, EBko energia guztiaren % 40 iturri berriztagarrietatik ekoiztea 2030ean, eta 2035etik aurrera matrikulatutako ibilgailu berri guztietan zero emisio eta tresna izatea gure karbono-hustubide naturalak zaintzeko eta indartzeko.
- 103 Hauen artean Bio dibertsitatearen Estrategia 30, ekosistemak leheneratu eta berreskuratzeko helburua izango duten egitasmoak sustatuz, batez ere, helburu hauek betetzeko proposak diren ekosistemetan: Karbonoa pilatu eta xurgatzeko, katastrofeetatik babesteko, polinizazioa edo lurraren osasuna kontuan hartuko dituen kudeaketa eta ekosistemak ematen dituzten zerbitzuak ikertu eta monitorizatzeko. Gero eta gehiago indartu gure ekosistemak, gero eta erresilienteagoak egingo gaitu espezie kaltegarri inbaditzaileen, izurriteen eta aldaketa klimatikoaren beste hainbat ondorioen aurrean.

- 104 Euskal Herrian ere, krisialdi ekologiko honi aurre egiteko, sektore guztietan eragiteko beharra daukagu, lehen sektoretik, zerbitzuetara, industrietatik igaroz zeharkako modu batean, non karbonizazioa lantzen den eta tokiko negozio eta ekoizpen ereduetan oinarritutako sinergia ekonomikoak garatzen diren.
- 105 Nekazaritza eta abeltzaintza agroekologian oinarritu behar ditugu. Agrotokiko gabe-koa, bioaniztasunarekin bateragarria eta landa eremu bizigarri baten oinarri moduan. 2050erako ekoizpenaren %100 ekologikoa izan beharko litzateke.
- 106 Lehen sektorea indartu eta gure ekonomian eta enpleguan duen eragina handitu behar dago. Politika publikoak bertako eta sasoiko produktuen kontsumora bideratu, euskaldunen mahaietan bertakoaren eta ekologikoaren elikagai kopurua handituz.
- 107 Basogintza ere, sortu diren paradigma berrietara egokitu beharra dago. Basoak eduki ditzakeen edozein ekoizpen mota, bertako ekosistemetan oinarritu beharko litzateke. Hau da, bertako espezieetan eta ekosistemetan oinarritutako ekonomia berri bat sortu behar dugu basoaren inguruan.
- 108 Arrantza ere aldaketa sakonen objektua izango da, gure itsaso eta kostaldeko ekosistemak indartze aldera, arrantza justu eta jasangarria bultzatzeko garaia delakoan gaude.
- 109 Ekonomia zirkularra bultzatzeko egitasmoak beharrezkoak izango dira sektore desberdinetan. Hala nola, hiri eta industria hondakin kudeaketan eta kontsumo ohituretan.
- 110 Mugikortasunean, garraioan eta hiri planifikazioan aldaketak ezin dira jada ekidin. Publikoa eta garbia, erregai fosilak alboratuz, herrialdeetako bidegorri sare indartsuak, tren sozialak...
- 111 Trenbide-zerbitzuei dagokienez, EAK Estatuko trenbide-sare osoa EAera eta Nafarroara berehala transferitzea eskatzen dugu, Euskal Herrietik pentsatutako zerbitzuak eskaintzeko, batez ere Bizkaiko eta Gipuzkoako aldiriko tren-sareen kasuan. Era berean, gure sareko linea arretagabeenen maiztasunak elektrifikatu eta handituko dira, hala nola Bilbao – Karrantza – Santander zabalera metrikoko linearen maiztasuna eta linea eta azpiegitura berrien berraktibazioa, errentagarritasun soziala lehenetsiz. Gainera, EAtik mugaren bi aldeak eta dagozkien metropoli-eremuak eraginkortasunez lotuko dituen aldiriko zerbitzua sortzea bultzatuko dugu.
- 112 Txartel bakarra duen garraio-eredu baten alde lan egingo dugu, gaur egun Gipuzkoan bakarrik aplikatzen dena, gainerako herrialdeetan errealitate bihur dadin. Tarifa-eredu horrek intermodalitatea bultzatzen du, eta erabilera handitzen eta bidaiarientzako kostua merkatzen laguntzen du. Era berean, EA herrialde bakoitzeko garraio-txartel guztiak etorkizunean integraztearen alde agertu da, Hego Euskal Herrian tarifa-sistema bakarra sortzeko asmoarekin. Gure herrialdean hondakinen kudeaketaren eztabaida mahai gainean dugu. Zaldibarko zabortegea behera etortzeak erakutsi digu ezinbestekoa dela zaborra gutxiago sortzen duen gizarte bat garatzea, hondakinik onena sortzen ez dena baita. Beharrezkoa da gure udalerrietan hondakinak biltzeko sistema selektiboak gehitzea, baita gure bizitzetako erabilera bakarreko plastikoak ezabatzea ere. Argi daukagu

inbertsio publikoak material birziklagarriak hondakinen hierarkiaren beheko mailetan blokeatzen ez dituzten azpiegiturretara bideratu behar direla, balorizazioan eta ezabaketan oinarritutako sistemen, kutsatzaileen eta osasunerako kaltegarrien gaintetik. Askotan esan dugu hori, eta horrela jarraituko dugu horrelako azpiegiturak Euskal Herrian kokatzen saiatzen diren bakoitzean.

- 113 Basogintzak ere egokitu behar du paradigma berri horietara. Gure basoetako ekoizpen orok gure ekosistemetan oinarrituta egon behar du. Hau da, ekonomia berri bat sortu behar dugu basoaren inguruan, gure animalia-espezieen eta ekosistema autoktonoen babesean oinarrituta.
- 114 Era berean, EUSKO ALKARTASUNA eredu ekonomiko zirkular baterako trantsizioa egitearen alde dago. Mundu honetako baliabideak mugatuak direnez, garapen jasangarria, ingurumenaren beharrak eta klima aldaketaren aurkako borroka uztartu behar ditugu. Sistema eta paradigma aldatu behar ditugu.
- 115 Ekonomia zirkularreko eredia “erabili eta bota” kontsumo sistematik produktuen eta materialen erabilerari ahalik eta denbora luzeen eustea helburu duen sistema zirkular batera igarotzean datza. Era horretan, hondakinak eta baliabideen erabilera murrizten dira, eta ekonomiaren barruan baliabideei eusten zaie. Produktu batek erabilgarria izateari uzten dionean, balio berri bat ematen zaio birziklapenaren, bilketaren edo, posible bada, konponketaren bidez.

3.9. Trantsizio energetikoa

- 116 Trantsizio energetikoaren eraginez, mundu osoko sektore energetikoa aldatu egingo da; energia fosiletatik karbono mailako neutraltasunera igaroko gara mende honen bigarren erdirako. Izan ere, klima aldaketa mugatu nahi badugu, ezinbestekoa dugu energiari lotutako CO2 emisioak murriztea. Sektore energetikoaren deskarbonizazioa premiazkoa da, eta mundu osoan trantsizio energetikoa gauzatzen ari den bitartean, ekintza gehiago burutu behar ditugu karbono emisioak murrizteko eta klima aldaketaren ondorioak arintzeko.
- 117 Azken urteotan, energiaren kontsumoa etengabe hazi da, baina Hego Euskal Herrian sortutako energiaren % 17 baino ez da jasangarria (% 8 EAEn eta % 23 Nafarroan). Euskal Herriak kanpoko energiarekiko duen mendekotasuna % 90 ingurukoa da, eta energia fosilaren kontsumoa % 85 ingurukoa da. Erronka handia dugu aurrean, eta ez oso egoera zailean gaude, beraz, trantsizio energetikoan aurrera egiten behar dugu lehenbailehen, eta energia eredu jasangarriago, deszentralizatuago, publiko eta demokratikoago baterako oinarriak ezarri.
- 118 EUSKO ALKARTASUNAK komunitate energetikoak ugaritzearen alde egiten dugu, tokiko eredu kooperatibo baten bitartez, horretarako energia jasangarrien arloan Europako legediak eskaintzen dituen aukerak baliatuta. Hori izan behar da gizarteak trantsizio horretan ahalduzko tresna, eredu oligarkiko pribatuekiko mendekotasuna murriztuz eta eredu publiko eta parte hartzaile batera igaroz. Energia jasangarrien sorrerak ingu-

rumena eta biodibertsitate babestu behar ditu, eta halako egitasmoak eremu babes-tuetatik kanpo gauzatuko dira beti; natura paisaia edo mendi babestuetatik kanpo eta landaretzari edo faunari kalte egin diezaioketen eremuetatik kanpo, alegia.

- 119 Sektorearen deskarbonizazioa funtsezko alderdia izango da trantsizio energetikoan. Eta, arlo horretan, Euskal Herrian bide luzea dugu aurrean. Azken urteotan, independentzia energetiko handiagoa bermatu eta, aldi berean, deskarbonizazio-prozesuan eta gaserako trantsizioan lagunduko ziguten diru-laguntzak alferrik galtzen utzi ditugu, nahiz eta Eusko Jaurlaritzaren inbertsio horrek ondorio nabarmenak izan dituen gaur egungo argindarraren faktura altuetan.
- 120 Horrez gain, EAEko berotegi-efektuko gasen emisioek puntu erdian gainditzen dute Europako batezbestekoa, eta 1990etik aurrerako emisioen murrizketa Europako batezbestekoa baino 13 puntu beherago dago. Nafarroan datuak ez dira dramatikoak, baina hala ere 1990etik aurrerako emisioen murrizketa Europako batezbestekoa baino txikiagoa da, 4 puntu hain zuzen. Parisko Itunak aurrerapauso handia ekarri zuen klima aldaketaren aurkako borrokan, baina ez da nahikoa deskarbonizazioa burutzeko, are gutxiago Euskal Herrian. EAEn emisioak % 0,8 baino ez dira murriztu urtean, Parisko Itunak % 7 murrizteko konpromisoa ezartzen duen arren. Helburu hori lortzetik urrun gaude, beraz.
- 121 EUSKO ALKARTASUNAK sektore energetikoaren emisioak murriztearen alde egiten du. Horretarako, gailu elektronikoen eta eraikinen eraginkortasun energetikoa handitu behar dugu, kontsumoa murrizteko eta, bide batez, Euskal Herriko familiek ordaindu beharreko argindarraren faktura merkeagoa izan dadin. Eta planetaren osasuna hobetzeko, jakina. Gainera, EUSKO ALKARTASUNAK energia jasangarrien aldeko apostu argia egiten du, natura inguruneak eta biodibertsitatea errespetatzeko asmoz.

3.10. Trantsizio digitala

- 122 Trantsizio digitalak bizitzaren arlo guztiak aldatzeko ahalmena du eta etorkizunean Euskal Herria eta mundua bera ere bizitzeko eszenategi berriez jantziko du. Iraultza digitalaren arloan murgilduta dagoen Euskal Herriak beraz, datozen berrikuntza digitaletara egokitzeko bere norabidea definitu behar du.
- 123 “Euskal Errepublika Digitala” eraikitze bidean euskara, feminismoa, ekologia eta etikan ardaztuta egongo den eraldaketa digitala bermatu behar da. EAE, Nafarroa, Euskal Hirigune Elkargoa eta Diaspora, mugarririk gabe saretuko ditu, Euskal Herriaren konexio eta kohesioa sustatuaz eta euskararen zirkulazio askeaz. Datuen ekonomia berriaren parte diren Adimen Artifiziala, Datu masiboak (Big Data), zibersegurtasuna, bloke-katea (blockchain), Gauzen Interneta (IoT), konputazio kuantikoa, etab. euskal gizartearen garapen justu, iraunkor eta euskal herritarren ongizatearen mesedetan erabiltzeko ekosistema sortu behar da.
- 124 Euskal Errepublika Digitalaren dekalogoaren oinarriak azaltzen dira jarraian, dinamikoa eta gaurkotzera irekia dagoen dekalogo:

- a) Herritarren ahalduntze digitala.** Gaitasun digitalekin eta inongo motako arrakala digitalik gabe (generoa, sozio-ekonomikoa, adina, geografikoa, aniztasun funtzionala), aro digitalean euskal herritarrei parte-hartze demokratikoa bermatuko dien ahalduntze digitala.
- b) Azpiegitura digitalak denontzat.** Euskal Herriko auzo, herri, enpresa eta erakundeetan interneterako konexioa eta beharrezko diren baliabide teknologiko eta prestakuntza bermatu behar da.
- c) Burujabetasun teknologikoa eta gobernu irekia.** Herrialde teknologikoki etiko, burujabe, ireki, parte-hartzaile eta demokratiko baten alde lan egitea. Software-askearen sustapena lehenetsiz eta herritarren datuen kudeaketan, pribatutasuna bermatu eta formatu irekiak eta banatuak sustatu, ezagutza partekatu ahal izateko eta herritarrei zerbitzu berriak eskaini ahal izateko.
- d) Berrikuntza digitalaren transmisioa.** Unibertsitate eta zentro teknologikoak, ikerketa eta berrikuntzaren ezagutza pragmatikoa transferitzeko ekosistema eraginkor baten sorrera ezinbestekoa da, ezagutza industria 4.0, enpresetara (ETE), tokiko merkataritza elektronikora, nekazaritza, administrazio publikora eta gizartera transferitzeko.
- e) Talentua.** Mundu mailan eta Euskal Herrian dagoen ZTIM- (Zientzia Teknologia Ingeniari-tza Matematikak, STEM) profesionalen gabeziaren aurrean, estrategia integrala diseinatu da, ZTIM bokazioak erakartzeko, bereziki hain beharrezkoak diren ZTIM emakume garatzaileen parte-hartze eraginkorra bermatuz.
- f) Euskara ingurune digitalean.** Euskararen etorkizuna bermatzeko, euskararen garapen teknologikoa lehenetsiko da. Hizkuntzen teknologien apustua egingo da, Adimen Artifizialaren estrategia, euskarari ardaztuaz.
- g) Ekodigitalizazioa.** Eraldaketa digitala era iraunkorrean egin behar da, energia-kontsumoa ahalik eta urriena izan dadin eta gailu digitalen biziraupena ahalik eta iraunkorrena. Digitalizazioak ere ekonomia zirkularraren ezinbesteko osagaia izan behar du.
- h) Adimen Artifiziala.** Datuak 21. mendeko urrea dira. Adimen artifizial humanoa izango da oinarria eta garatuko diren soluzio teknologikoak, pertsonen ongizatea kontuan izango dute, alborapen diskriminatzaile guztiak saihesten dituzten algoritmo auditagarriak erabiliz, intimitatea errespetatuz, datu pertsonalen subiranotasuna eta eskubide guztiak bermatuz egingo dira. Herritarren datu pertsonalen jabetza lehenetsiz.
- i) Euskal Herri zibersegurua.** herritar, enpresa eta erakundeak zibersegurtasunaz babestuko dira, gizarte digitala eraikitze beharrezko den konfiantza sustatuz.
- j) Eskubide eta betebeharrak digitalen gutuna onartuko da, eskubide digitalak bermatzeko erronka digital eta etikoei, eta pribatutasunari erantzuna emango diona.** Egun dauden teknologia digital guztiak eta etorkizunean sortuko direnak ere, euskal herritarren ongizatearen mesedetan erabil daitezten.

3.11. Gazteak

- 125 Pandemiaren garai hauetan euskal gazteria prentsaren, politikarien eta orohar gizar-tearen jomugan egon da. Asko azpimarratu dira gazteriaren okerrak, hala nola jende pilaketak egun puntaletan edota kale-zurruta. Baina ez dira hainbeste azpimarratu, ordea, gazteriak sortutako zaintza-sareak edota aisialdirako alternatibak (EHZ jaialdia, Donostiako Piratak, gaztetxeetan eginiko lana etab.). Pandemiaren zehar bizi izan dugunak gure herriaren josturak erakutsi dizkigu, gure herriak dituen beharrak eta ezin gaitzak argitaratu eta horietako batzuk gazteriari zuzenki eragiten die. Jendarte moduan gure gazteriari huts egin diogu, eta belaunaldien arteko elkartasuna hautsi baita. Horren adibide da gazteriak dituen zailtasunak bizitza proiektu orekatu eta egonkor bat egiteko. Hori dela-eta, EUSKO ALKARTASUNAREN ustez, belaunaldien arteko hitzarmen berri bat sortu behar dugu, zeinak derrigorrez honako arazoei aurre egin beharko dion:

Hezkuntza

- 126 Hezkuntza izan da, da eta izango da gure belaunaldi berrien oinarria. Euskal Herri burujabe eta aske bat nahi badugu derrigorrez gure gazteen hezkuntzan inbertitu beharko dugu. Hezkuntzaren bidez igogailu sozialak martxan jarraitzeko aukerak dauzka, baino horretarako bermatu beharko da doakoa eta irisgarria den hezkuntza, zeinak etorkizuneko erronkei aurre egingo dien. Baina dena ez da hezkuntza formala, beste hezkuntzetan ere eragin beharko da gure gazteriak egokiak diren balioak bereganatzeko, besteak beste: elkartasuna, euskararekiko begirunea, desberdinen arteko kulturartekotasuna, LGTB+ kolektiboarekiko errespetua, biolentzia ezaren aldeko jarrerak etab.

Enplegua

- 127 Enplegurako sarbidea gaur gaurkoz arazo handienetakoa da gure gazteriarentzat. Hainbat urteetako esperientzia eskatzen da, soldata eskala bikoitza erabili, prekarietatean oinarritutako enpleguak eskaini etab. Gaur egungo jendartean enplegua da aberastasuna banatzeko modurik egokiena, eta gazteria bertara sartzeko arazoak izanik belaunaldi oso bat aberastasun banaketatik kanpo uzten dugu. Horregatik, derrigorrezkoa dugu euskal gazteriari enplegu duinak eskaintzea, etorkizuna duten sektoreetan inbertituz eta sarbideak erraztuz.

Etxebizitza

- 128 Etxebizitzaren merkatuak izugarritzko garrantzia dauka gazteriaren bizitza proiektuak egiteko momentuan. Gaur egun gazteen soldataren %80tik gora dioa alokairuan, NBEk esandako %30tik oso urrun. Honi aurre egiteko gizarte politika indartsuak eta berriak martxan jarri behar dira, etxebizitzak espekulatzailen hatzaparretatik kendu eta berez duen funtzio soziala betetzera eraman ditzaten.

Aisialdia

- 129 Covid-19aren pandemiak utzi digun irakaspenetako bat gure aisialdiaren beharra eta garrantziaz konturatzea izan da. Hau batez ere gazterian ikusi da, ikasketak soilik egitera

bideratu baitira hartutako neurriak. Aisialdi osasungarri, irisgarri eta soziala beharrezkoa da jendartean sareak sortu ahal izateko, horregatik beharrezkoa dugu aisialdiari dagokion garrantzia ematea. Hori egiten ari ez garen bitartean adikzioak gorantz doaz gazteen artean, bai apustu-etxeetan edota teknologiararen ingurukoak, besteak beste. Horretarako, gazteek beren kabuz kudeatzen dituzten zentroek funtsezko zeregina dute, ez bakarrik euskal gazteen mobilizazioen historian, baita euskal kulturaren hedapenean, LGTBI kolektiboaren eskubideen defentsan, hirietako eta herrietako auzo-jaietan eta Euskal Herriko historia biziaren eta gaur egungo historiaren parte diren hainbat gairen atzean ere.

Osasuna

- 130 Gaur egungo egoerak, osasunak eta batez ere osasun mentalak duen berebizikotasuna agerian utzi du. Izugarri handitu dira depresioak, estresa eta antsietatea jenarte guztian zehar, baita gazteen artean ere. Horren adibide argiena gazteen hiltze zergati handiena bere buruaz beste egitea da. Jendarte moduan ezin dugu gure gazteria hiltzen utzi guk sortutako sistemak sortzen dituen arazoengatik. Gure instituzio guztiak kontziente izan behar dute gaitz honen inguruan, eta herramintak jarri behar dira aurre egiteko (hez-kuntzatik hasita, gizartean ere, Osakidetzatik edota lan esparrutik pasadaz)

3.12. Pentsionistak

- 131 Ongizate Estatuak herstura ekonomikoa eta murrizketak jasan ditu urte luzez, eskuineko gobernuek ezarritako politika neoliberalak direla-eta. Ezinbestekoa dugu gure zaharren eskubideak babestuko dituen lege bat egitea, haien arazoei ikusgaitasuna emateko. Bestalde, Pertsona Zaharren Eskubideen Lege Osoak agenda politiko propioa izango du.
- 132 Legeak zaharrak modu berezian babestu, eta osasunaren eta etxebizitzaren arloak, gizarte babesa eta arlo ekonomikoa, babes juridikoa, kultura eta aisia barne hartu behar ditu.
- 133 Horregatik, EUSKO ALKARTASUNAK Dependentsiaren Legea zorrotz betetzea eskatzen du, beren etxea utzi nahi ez duten pertsoneri lagunduz, haien osasun-egoerak ahalbidetzen duen neurrian. Gainera, estrategia horrek lanpostu ugari sor ditzake.
- 134 Egoitzei dagokienez, zorrotz gainbegiratu behar dira, gure zaharrei bizimodu egokia eskaini diezaieten. Horretarako, kontrol eta eskakizunak zorrotzak ezarri behar zaizkie.
- 135 Osasun Publikoak zaharren beharrei erantzun behar die, geriatren kopurua handituz eta kasu askotan kolektibo honen bizitzan egiazko arazoa diren hortz gabeziari konponbide egokia emanaz.
- 136 2011an abiatutako eta 2013an berretsitako pentsioen erreformak ezarritako murrizketek bere horretan diraute.
- 137 Madrilgo Gobernuak atek zabaldu dizkio pentsioen erreforma berri bati. Neurrien artean, pentsioen sistema publikoaren pribatizazioa eta behar baino lehenagoko erretiroa hartzen dutenen aurkako zigorra, pentsioen plan pribatuak zabaltzea edo pentsioen

kalkulua egiteko kotizazio-urteen kopurua handitzea daude. Neurri horiek guztiak pentsioen sistema publikoaren aurkako eraso berri bat dira.

- 138 Bestetik, erretiroa hartzea zailtzeko eta lan-bizitza luzatzeko zerga-pizgarriak proposatu dituzte. Neurri hori langileen aurkakoa da, zalantzarik gabe. Erretiroa hartzeko adina aurreratu behar dugu, gazteen enplegurako sarbidea errazteko. Lana banatzeak eta bizitza duina bermatzeak izan behar dute lehentasuna, eta, hortaz, neurriak helburu horiek lortzen lagundu beharko lukete. Pentsio duinak bermatzeko, soldata prekarioak debekatu, kotizazio-mugak igo, pentsioak osatzeko sistemak albo batera utzi eta finantzazioa bermatu behar dira.
- 139 Ezinbestekoa dugu, hemen eta orain, gizarte segurantzaren proiektua edukiz hornitzea eta haren alde borrokatzea. Berezko pentsio sistema bat behar dugu. Hori da pentsio publikoak, unibertsalak eta duinak bermatzeko modu bakarra.
- 140 Pentsio "miserableak" kobratzen dituzten 360.000 pertsonetatik gehienak emakumeak dira, eta haien barruan, kolektiborik ugariena alargunak dira. Halako pentsio kaskarrak seme-alabak edo haien mendeko senideren bat zaintzeagatik etxean lanean baina "ia kotizatu gabe" igarotako aldien emaitza dira. Emakumeen lanak ez du inoiz aitortza ekonomikorik izan eta, kasu askotan, erretiroa hartzeko eskubidea ere ukatzen zaie.
- 141 Hona hemen gure aldarrikapenak:
- 1.080 euroko gutxieneko pentsioa eta generoko arrakala gainditzeko neurriak.
 - 40 urtez kotizatu ondoren behar baino lehenagoko erretiroa hartu ahal izatea inolako zigorririk jasan gabe, Kongresuan eta EAEko Parlamentuan onartutako legez besteko proposamenekin bat.
 - Bizi-baldintza duinak eta herritarrek duten osasun zerbitzu publikoak jasotzeko eskubidea bermatzea, haien osasuna zaintze aldera.
- 142 Pentsioen kompetentziari dagokionez, EUSKO ALKARTASUNAK pentsio sistema publiko baten alde egin du betidanik. Beharrezkoa da Ongizatearen Estatua sendotuko duten politikak abiatzea, eta horretarako ezinbestekoa dugu gizarte politika bere osotasunean burutzea eta Gizarte Segurantzaren kompetentzia bereganatzea.
- 143 EEU eta beste euskal alderdi batzuk ez bezala, gure aldarrikapenak Gernikako Estatutuan ezarritakoa abiapuntutzat badute ere, betidanik asmo izan dugu egungo lege markoa gainditzea eta Gizarte Segurantzaren sistema propioa garatzea, euskal erakundeek gizarte kotizazioak modu zuzenean bildu eta kudeatu ahal izan ditzaten eta, era horretan, gizarte ongizatea bermatuko duten politika sozialak abiatu ahal izateko. Gure jarrerak oinarri argia du: egungo marko politikoaren barruan, alor horretan gehienez ere mamirik gabeko kompetentzia lor dezakegu. Harrotasun sentimendua ere bai, noski, euskal selekzio nazionalak gure herriaren eta Euskal Herriaren nortasuna defendatzen duten kultura eta kirol adierazpen guztien ordezkari bakar gisa lehian egoteagatik.

3.13. Balioak eta identitatea

144 EUSKO ALKARTASUNAK defendatzen du euskal gizartea, dekantazio historikoko prozesu baten eta krisiak eta gatazkak gainditzeko ahaleginaren emaitza gisa, erabat gai dela eduki eko handiko balioak izateko, balio horiek identitate propio eta bereizi baten funts nagusia izanik. Ildo horretan, honako balio hauek bultzatu eta defendatu beharra aldarrikatzen dugu:

■ Bake-bizikidetzaren lortzeko nahi handia, justizian, eskuzabaltasunean eta indarkeria guztiak gainditzean oinarritzen den bizikidetzaren alegia.

■ Ongizate-sistema aurreratu batean oinarritzen den gizarte-kohesioa; sistema horrek bermatu behar du herritar guztiak beren potentziala hedatzeko eta bizitza duina izateko aukera izango dutela, eta ez du utziko kide bakar bat ere babesik gabe, krisi ekonomikoko egoeran egon arren.

■ Gizonen eta emakumeen arteko berdintasun-eredu bat, generoen arteko diskriminazio- eta mendekotasun-egoera iraingarriak gainditzeko ahalbidetuko duena.

■ Euskara erabiltzeaz harro egotea eta besteei transmititzeko ardura izatea; munduan gaur egun hitz egiten diren hizkuntzen artean zaharretako da euskara.

■ Ingurumenarekiko jarrera arduratsua izatea, aurrez aurre ditugun arrisku klimatikoak eta bestelako arriskuei aurre egiteaz gain, gure garapen-maila ez dutenekin eta etorkizuneko belaunaldiarekin portaera solidarioa izango duena.

145 Balio zibiko horiek guztiak finkatzeko eta positiboko garatzeko beharrezkoa da herritarrek prestatuta eta informatuta egotea eta kritikoak izatea, eta era berean, adostasun sozial zabalak oinarri izanik, garapen horiek ahalbidetzeko esparru politiko eta administratibo bat edukitzea.

146 Askotariko identitate eta sentsibilitateak dituzten herritarrez osatuta dago euskal gizartea. Argi dago. Hala eta guztiz ere EUSKO ALKARTASUNAREN proiektuak ez du elementu sakabanatzailerik. Gure identitaterik agerikoena hain zuzen ere denborak aurrera egin ahala eratzten ari diren xede-balio horiek direla kontuan izanik, EUSKO ALKARTASUNAREN jarduna autogobernuko esparru politiko bat posible egitera bideratuko da. Esparru politiko horretan ez da ezer inposatuko eta gure bizitzeko eta elkartasuna ulertu eta gauzatzeko modua babestuko da eta etengabeko hobekuntza bermatuko da.

4. Euskal Herria, naziotik estatura

- ¹⁴⁷ Subiranotasuna ez da aldarrikapen edo ideia berri bat euskal herritarrentzat. Aldarrikapen zahar bezain berria da, eta euskal abertzaletasunari ez ezik, euskal lurraldetan bizi diren herritarren ongizatea bermatu eta garatzeko borondateari dago lotua. Euskal lurraldeko biztanleak osatzen duten komunitatea behin eta berriz saiatu da historian zehar bere burua antolatu eta politikoki gobernatzen, euskal herritarren bizi-baldintzak zein baldintza ekonomikoak, sozialak eta kulturalak hobetze aldera. Subiranotasunerako bide horretan, euskal herritarrak, sarritan komunitate ezberdinetan eratua, proiektu ugari sortu ditu, eta horiek, nagusiki, mespretxuaren erantzuna jaso dute Espainiako eta Frantziako estatuen aldetik.
- ¹⁴⁸ Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurraldetan bizi diren euskal herritarrei dagokienez, bi dira historia garaikideko azken berrogeita hamar urteotan jazo diren gertaera nagusiak: 1979an sortu eta erreferendumean herritar gehienek berretsitako autonomia-estatutua eta 2004an Legebiltzarrean gehiengoak onartutako Euskadiko estatutuko politiko berriaren proposamena. Bigarrena, Euskadiko estatutuko politiko berriaren proposamena, ez zen aintzatetsi Espainiako Diputatuen Kongresuaren erabakiz 2005eko otsailaren 1ean. Lehendabizikoa, Gernikako estatutu izendatua, indarrean berrogeita bi urte egin baditu ere, oraindik ez du osatu Espainiako Estatuak.
- ¹⁴⁹ Alde batean egun gizarte modura ditugun erronkak ipintzen baldin baditugu (politikoak, ekonomikoak eta sozialak) eta, beste alde batean horiei aurre egiteko ditugun baliabideak ipintzen baldin baditugu, desoreka gero eta handiagoa da euskal herritarrentzat. Hori dela eta, Gernikako autonomia-estatutuaren fasea agortutzat jota, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako euskal herritarrek erabateko subiranotasuna suposatzen duen estatus politiko berri bat behar dutela aldarrikatzen dugu. Garai honi dagozkion erronka berriek eskatzen dituzten tresnak behar ditugu, euskal herritar guztiek bizi-baldintza egiaz

duinak izan ditzaten. Eta gaur egun, munduan, subiranotasun maila handienak eskaintzen dituen tresna juridiko-politikoa berezko Estatu bat izatea da. Beraz, egun ditugun baliabideak subiranotasunerako tresna bilakatzeko asmo irmoa dugu, berezko estatu bat eraikitzeko balioko digutenak.

- 150 Euskal Herria zazpi lurraldez osatutako nazio bat da. Lurralde jakin bati, hartako kultura eta hizkuntzari atxikitako herritarrak dira, batez ere, munduko nazio bakoitzari forma ematen diotenak. Euskal Herria ez da salbuespena eta, nazio modura, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa (Behe eta Goi) eta Zuberoko lurraldeetako herritarrek osatzen dute, beren kultura eta beren euskararengatik (hizkuntza). Euskal Herriko herritarrek historikoki elementu horiek guztiak barne hartuko dituen instituzio-egitura bat bilatu dute.
- 151 Gaur egun, egun Euskal Herria osatzen duen giza eta kultura komunitatea, euskal herritarren nazioa, bi estatutan dago bereizia eta, era berean, Espainiako Estatuaren kasuan, euskal lurraldea bi autonomia erkidegotan dago bereizia. Nazio modura, hala baita, euskal herritarrei dagokie autodeterminaziorako eskubidea, haiei dagokie demokratikoki independentzia lortzeko baliagarri izango zaien egitura instituzional bakar bat osatu nahi duten erabakitzea. Horregatik guztiagatik, Euskal Herriko lurraldeak egun duen zatiketa administratibotik abiatuz, ezinbestekoa da erabakitzeko eskubidea egiazko izatea ahalbidetuko duen prozesu bat abian jartzea, euskal esparru administratibo bakoitzetik, muga bakar modura bertako herritarrek demokratikoki adierazitako borondatea izanik.
- 152 Euskal Herria den nazioaren parte gisa, gainerako euskal lurraldeekin batera, autodeterminaziorako eskubidea dagokio. Era berean, bertako lurraldeek (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) komunitate politiko modura eratzeke adierazitako borondatean oinarrituta, Euskal Autonomia Erkidegoak edo, Euskadik, bere etorkizun politiko demokratikoki hautatzeko erabaki-eremu bat osatzen du. Xede horrekin, egun dagoen autogobernu maila gaitutako duen trantsizio-prozesu bat abiatzen da, euskal nazioaren eraikuntza demokratikoa helburu hartuta. Ez hori bakarrik, autonomiak berak hainbat eraso jasan ditu, bai kanpotik (Konstituzio Auzitegia, LOAPA), bai barrutik (LHL, ez bozkatzeko amejorramendua, hizkuntza gutxituei buruzko Frantziako Konstituzio Auzitegiaren epaia), euskal nazioa atomizatu eta txikiago askotan diluituko duten erakundeak iraunarazteko.
- 153 Espainiako Estatuak sekula ez du Euskal Nazioa aitortuko, ezta dagozkion eskubideak ere. Euskal herritarrek Frantzia eta Espainiako estatuen aldetik beren izaera nazionala aitortu dadin bilatu dute historikoki. Bi estatuen mendekotasunean bizi diren euskal herritarrek beren nortasun nazionalean zen beren berezitasunean errespetatuak izateko eskubideak aldarrikatu dituzte mendez mendez. Baina eginahal horiek guztiak alferrikoak izan dira, izan ere, diktadura frankista amaitu eta lau hamarkada baino gehiago igaro ondoren, Euskal Herrian jakin badakigu Espainiako Estatuak ez duela gure izaera nazionala eta, horrenbestez, gure erabakitzeko eskubidea aitortzeko borondate politikorik. Beraz, Espainiako Estatuarekin aldebikotasunean oinarritutako harreman bat

bilatzeko modu bakarra (aldebikotasuna berdinen arteko harreman modura ulertuta) Euskal Nazioa (herritar gehienen borondatea oinarritzat hartuta) Espainiako Estatutik kanpo kokatzea da.

- 154 Ildo horretatik, Euskal Herriak, Herrialde Katalanek eta Galiziak, izaera eta egoera ezberdineko nazioak izaki, elkarrekiko errespetuan oinarritutako beren prozesu eratzailleak gauzatu behar dituzte. Proiektu eratzaille bakoitzak bere denborak, abiadurak eta prozedurak baldin baditu ere, guztion artean prozesu eratzaille ezberdinen artean sortzen doazen sinergiak etengabe aprobeztatzen saiatu behar gara (horrekin Espainiako Estatuaren demokratizazioa lortu zein ez), gure etorkizunaren jabe izatea erdieste aldera.

Erabateko euskal subiranotasuna: euskal herritar guztien ongizatea bermatzeko bidea

- 155 Erabateko subiranotasuna aldarrikatzen dugu, gure etorkizunaren jabe bakarrak izan nahi dugulako. Jakina, Euskal Herria sentitzeko modu guztiak eta gure komunitate politikoan dauden ikuspegi guztiak errespetatu daitezkeen egiten dugu lan. Izan ere, bizikidetzaren demokratikoaren oinarria proiektu politiko guztiak baldintza berdinetan defendatu eta gauzatu daitezela bermatzea da.
- 156 Gaur egun, subiranotasun osoak bakarrik berma dezake euskal herritar guztien ongizatea. Madrilen, Parisen edo are urrunago dauden botere-guneetan hartzen jarraitzen den bitartean, euskal herritar guztien bizitzari eragiten dioten erabakiek, gure lan-eskubideek, gure osasun-eskubideek, gure etxebizitza-eskubideak eta abar luze batek arrisku larria izaten jarraituko dute. Errealitate hori argi eta garbi geratu da pairatu berri dugun osasun-krisian. Gure erakundeei eskumen osoa emanez eta herritarren beharren zerbitzura jarriz bakarrik bermatu ahal izango dugu euskal herritar guztien ongizatea.
- 157 Gaur egun, soilik erabateko subiranotasunak berma dezake euskal herritar guztien ongizatea. Euskal herritar guztien bizimoduan eragina duten erabakiak Madrilen, edo are urrunago dauden botere-gunetan hartzen jarraitzen diren bitartean gure lan eskubideak, gure osasun eskubideak, etxebizitzarako gure eskubidea eta abar luze bat arrisku larrian mantenduko dira. Errealitate hori guztiz frogatuta geratu da pairatu berri dugun osasun krisian. Soilik gure instituzioei erabateko eskuduntza emanez eta instituzioak herritarren premien zerbitzura ipiniz bermatuko dugu euskal herritar guztien ongizatea.
- 158 Tresna politikoak erabilgarri izatea behar dugu, horietako bakar bati muzin egin gabe, gure ekonomia-eredu berezkoa eraikitzeko, aberastasuna sortzea eta banatzea bermatzeko, tokiko ekonomiatik abiatuz gure herrialdea jarduera ekonomikorako abagunerako eremu bilakatzeko, hitz batean esanda, euskal ekonomiaren ahalmen guztia gartzeko. Hortaz, erabateko subiranotasuna izanez gero, euskal gizarteak ongizate maila handienekin gozatzeko aukera izango du; ziur gaude horretaz.

Euskal estatu bat sortzeko bidea

- 159 Egun bizi garen mundu globalizatu honetan subiranotasuna erlatiboa dela sinestarazi nahi baldin badigute ere (nazio bakoitzeko instituzio demokratikoaren gaintik dauden botere-gune eta sareen ondorioz, normalean finantzekin eta kapitalaren fluxuekin lotuta daudenak), Estatua oraindik subiranotasun maila handiagoa ahalbidetzen duen tresna juridiko-politiko bat da. Beti Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako euskal herritarren ongizatea bermatu eta garatzeko xedez, ez diogu, inolaz ere, muzin egiten berezko Estatu bat lortzeko bideari, subiranotasun maila handiagoa erdieste aldera.
- 160 Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak demokrazia parte-hartzailean eta justizia sozialean oinarritutako berezko Estatu bat sortzearen alde egiten dugu politikoki. Pentsa daiteke, Euskal Herria nazioa dela kontuan izanik, hurrengo urrats logikoa Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurraldeetako euskal herritarren aldetik, komunitate politiko modura eratuak, bere garaian Euskal Autonomia Erkidegoa sortzea erabaki genuen eran, eta autonomia-estatututik eratorritako egitura instituzionalak subiranotasunerako tresna bilaka daitezen, subiranotasun maila handiagoa emango digun berezko Estatu bat sortzea dela.
- 161 Horrenbestez, eta arestian deskribatutako guztiaren ondorioz, Eusko Alkartasunak berretsi egiten du EH Bilduk Gasteizko Legebiltzarreko Autogobernuaren batzordearen barnean egindako proposamenak. Herrialde honetako gehiengo sozial eta politikoa ordezkatzeko duen Estatua Berri bat lortzeari begira dagoen akordio zabal bat dagoela uste dugu. Oraindik urratzeke dagoen bide luzerako abiapuntu ona dela iruditzen zaigu, Euskal Herriaren eskubide historikoen lorpena izan beharko duena jomuga.

5. Euskal estatua Europar, eta Europako eta munduko nazio eta herriekiko harremanak

¹⁶² Aurrerapeneko eta herrialdeko akordioak garatzeko duen gaitasunagatik nabarmendu izan da beti Eusko Alkartasuna. Laguntza biltzen eta bide berriak ireki dituzten eta irekitzen jarraitzen duten ideiak aurrera ateratzen jakin izan du.

¹⁶³ Nazioaren eta gizartearen eraikuntza uztartu ditu EUSKO ALKARTASUNAK, sorreratik, banandu ezin diren elementu gisa. Justizia soziala eta aberastasunaren birbanaketa, gure gizartearen eta herriaren kohesio sozialaren eta solidaritatearen zutabe gisa, giza garapen osoaren alde. Horretara bideratzen ditugu gure ahaleginak Estatuko indar politikoekiko harremanetan zein nazioarteko harremanetan.

164 Estatuan, penintsulako eta uharteetako alderdiekiko harremanak sendotzen eta zabaltzen jarraitzen du EUSKO ALKARTASUNAK. Horretan laguntzen du Alkartasuna Fundazioak ere. 2016an sortutako Foro Subiranistaren kidea da, gure fundazioaren antzekoak

diren beste fundazio batzuei, sindikatuei edo beste alderdi politiko batzuei lotutako hogeitak bat erakundek bultzatzen dituzten ideien eta proiektuen laborategia da Foro Subiranista; indarrak batzea eta Estatuaren eta Europaren aurrean elkarrekin jardutea dira foro horren helburuak. EUSKO ALKARTASUNAK EH Bilduren bidez Kongresuan eta Senatuan egiten duen lana da horren froga, baita Llotja de Mareko Adierazpena ere, alderdi nazionalista kataluniarrek, euskaldunek, galiziarrek, balearrek eta valentziarrek 2019ko urrian sinatua. Gure herrien autodeterminazio-eskubidea, Kataluniako krisiari buruzko akordio politiko bat eta preso politikoak askatzea aldarrikatzen ditugu bertan. Eta hori da Europar animatzen gaituen izaera ere, EAAren baitan. 2019ko martxoaz geroztik, Eusko Alkartasuna da EAAren burua.

- 165 Duela ia lau hamarkada, Europako estaturik gabeko herri eta nazio guztien autodeterminazioaren alde borroka egingo zuen Europa mailako alderdi politiko bat sortzearen ideia proposatu zuten Eskoziako (SNP), Flandriako (VU), Korsikako (PNC), Kataluniako (ERC), Galiziako (BNG) eta Euskal Herriko (EA) emakume eta gizon aitzindari batzuek. Gainera, nabarmentzekoa da duela 22 urte EAAren gazteen adarra sortu zutela, EFA, Gazte Abertzaleak erakundearen eta EUSKO ALKARTASUNAREN ekimenez.
- 166 2021eko EAAk 49 alderdi politiko ditu, Europar Batasuneko 19 estatutan. Gaur egun, elkarlanari, solidaritateari eta jardunbide egokiak partekatzeari esker, Katalunian gobernatzeko aukera izan du ERCK, SNPk Eskozian, NVAk Flandrian, Femu a Córscak Korsikan eta Més Compromisek Valentzian. Herrien autodeterminazio-eskubidea giza eskubide unibertsalak dela aldarrikatzen du EUSKO ALKARTASUNAK.
- 167 Europako Batzordearen ekimenez, Europaren etorkizunari buruz eztabaidatzeko prozesu ireki eta parte-hartzaile batean murgilduta dago Europar Batasuna, lehen aldiz.
- 168 Eredu-aldaketa horretara bideratutako egitasmoak bultzatzen ditu EAAk Europako Etor-kizunari buruzko Parlamentu Biltzarrean eta foro parte-hartzaileetan, EAAko eurodiputatuen bidez, kideak diren eurodiputatuen bidez (adibidez, EH Bildoa) eta Eskualdeetako Lantaldean parte hartzen duten EAAko kideen bidez.
- 169 Azken krisiek (ekonomikoak, sozialak, ingurumenekoak eta osasun arlokoak) agerian utzi dute gizarte-eredu berrien, ekoizpen- eta kontsumo-eredu berrien, eta lan egiteko eta modu solidarioan bizitzeko modu berrien premia larria dugula. Izan ere, ez da posible desberdintasunetan oinarrituta bizitzen jarraitzea, ezein arlotan. EUSKO ALKARTASUNAK, indar eraldatzailea eta aurrerapenaren indarra den aldetik, paradigma-aldaketa horretan lanean dihardu buru-belarri.
- 170 Gure herriek eta nazioek badakite “gu” komun bat eraikitzeke unea iritsi dela, bakoitzak bere nazioan. Gure hizkuntzen eta kulturen aniztasuna errespetatzeko eskatzen dugunok, gurekin batera bizi diren hizkuntzak eta kulturak errespetatu behar ditugu, ezinbestean. Gure nazioetan bizi den pertsona oroentzat gizarte eta herrialde hobek eraikitzea da gure xedea.

- 171 Hala, norbanakoaren adimenetik taldearen adimenera pasatzea bultzatzeko ordua ere iritsi da. Herri Batzarren metodoa bultzatzen du EUSKO ALKARTASUNAK, erabaki ho-
beak eta proiektuekiko atxikimendu maila altuagoa lortzeko tresna gisa.
- 172 Gizarte justuago eta berdinzaleago, demokratikoago eta irekiago baten aldeko borroka
espektro “nazionalistaz” haragoko atxikimenduak sortzen dituela frogatu dute Eskoziak
eta Kataluniak. Gure postulatuekin aurrera egiteko, ezinbestekoa da gizarte zibila akti-
batzea, gizarteko sektore guztiak inplikatzea (arlotan akademikotik hasi eta enpresetara)
eta herria aktibatzea.
- 173 Estatuaren egokortzea ikusita, Europar bide berriak irekitzeko lanean ari gara.
- 174 XXI. mendean herrien erabakitzeko eskubidea modu baketsuan eta demokratikoan egi-
karitzea ahalbidetuko duen Europa mailako erreferentzia-esparru bat ezartzeko lanean
ari da EUSKO ALKARATSUNA, Coppieters Fundazioarekin eta beste fundazio, eragile eta
alderdi politiko batzuekin batera. Gure proposamena honakoa da: Estatuak herritarren
gehiengoaren borondatea garatzeari uko egiten diotenean, EBk esku hartzeko bete-
beharra izatea eta negoziatio-esparru bat ezartzea. Autodeterminazio-eskubidearen
egikaritzea, dagoeneko, ez da estatuaren barne-gai bat. Orain, EBri zuzenean eragiten
dion gaia da.
- 175 EBk bazkide garrantzitsua galdu du Brexitarekin, eta agerian geratu da Erresuma Ba-
tua gero eta gehiago aldentzen ari dela. Eskoziako bigarren erreferendumaren gaineko
eztabaida martxan dago jada, eta Irlanda berriro batzeari buruzkoa norabide onean
doa aurrera. Galesko nazionalismoaren aurrerapena ere nabarmentzekoa da. Bestetik,
EBtik bereiztean hornidura faltagatik eta aurreikuspenik ezagatik sortutako gatazka so-
zialak direla eta, erabaki hura zalantzan jartzen dute dagoeneko askok.
- 176 AEBk, Errusiak eta Txinak tenkatutako mundu honetan, Europa sozial, anitz, indartsu
eta independente baten alde borroka egiten dute EUSKO ALKARTASUNAK eta haren
bazkideek. Hain zuzen ere, giza eskubideen, eskubide sozialen eta ingurumenarekin lo-
tutako eskubideen errespetuan oinarritutako potentzia geopolitiko baten gisa jokatu-
ko duen Europa bat dute xede.
- 177 Sahara, Palestina, Kurdistan eta haien askatasunaren alde borroka egiten duten gaine-
rako herriekiko elkartasuna sustatzen du EUSKO ALKARTASUNAK, baita haien oinarritzko
eskubideen (norbanakoenak eta kolektiboak) aitortza ere.
- 178 Erronkak handiak dira, baina gure gizarteak eraldatzen jarraitzeko dugun konpromisoa
ere halakoa da, handia. Azken finean, demokrazia ari gara, demokrazia osotasunez
erabiltzeaz.

5.1. Diasporaren papera

- 179 Diasporaren paperak atal propioa merezi du gure txostenean. Beti esaten dugu Euskal Herriko zortzigarren lurraldea dela diaspora, eta nabarmentzekoa da diasporak iraganean paper garrantzitsua izan zuela, batez ere, errepresioaren garaian, kultura mantentzeari eta errepresialiatuei laguntzeari dagokienez. Diaspora aktibo dago oraindik, eta mundu osoan euskal kultura eta identitatea zabaltzen jarraitzen du. Horren adibide dira La Platako Unibertsitateko (Argentina) Euskararen eta Euskal Kulturaren Irakurletza, Katedra Askeak, UNLPko Zuzenbide Fakultateko Estaturik Gabeko Nazioen Behatokia (ONSE) edo Renoko Unibertsitateko (Estatu Batuak) Euskal Ikasketen Zentroa. Halaber, aipatu eta onartu beharrekoa da Euskal Herriaren eta dagozkien herrialdeen arteko harreman ekonomikoetan “bitartekari” lana egiten duela diasporak.
- 180 Baina ez da nahikoa. Euskal Herria herri migratzailea izan da guztiz haren historian zehar, eta, ondorioz, euskal jatorria duten hamabost milioi pertsona inguru daude munduan zehar. Dena den, argi dago horiek guztiek ez dutela jarraitzen Euskal Herriarekin harreman estua izaten.
- 181 Onartu beharra dago Euskal Herrian ere ez diogula behar adinako arreta jartzen diasporari. Eranskin folkloriko gisa geratu da, izan behar lukeen ahalmen politikorik gabe.
- 182 Diaspora lobby garrantzitsu bat bihurtzearen aldeko apustua egiten dute EUSKO ALKARTASUNAK eta Alkartasuna Fundazioak, Armeniako, Irlandako edo Kataluniako diasporaren kasuan bezala; munduan Euskal Herriaren enbaxadore-lanak egiteko gai eta Euskal Herriaren interesen alde jarduteko gai izango dena. Diaspora, zentzu zabalean ulertuta, presentzia mediatikoa izango duena, prestatuagoa eta konprometitua, emozioan baino gehiago konbikzioan oinarrituko dena. Izan ere, beharrezkoa da nazioarteko organismo eta foroetan gure subiranotasuna aldarrikatzen jarraitzeko babes politikoa eta diplomatikoa biltzen jarraitzea. Euskal diaspora aintzat hartu behar da eta ongi zaindu behar da, mundu mailan duen lekuaren eta onarpenarengatik.

6. Parte-hartze politikorako modu berriak eta antolaketa-eredu berria. Euskal Herria Bildu eta Euskal Herria Bai

¹⁸³ Politikan herritarren parte-hartzea asko aldatu da azkenaldian, eta herritarren zati handi batek alderdi politikoekiko duen desafektazioa errealitate bat da, gure alderdian ere eragina duena. Proiektu politikoekiko atxikimendu apurtezinak desagertzen ari dira eta

politikako eta alderdi politikoetako parte-hartzea gaur egun askoz selektiboagoa da. Gainera, lehendik ere ematen ari zen aldaketa bat areagotu du bizi izan dugun pandemia honek. Iraultza digital bete betean gaude; abiadura oso bizkorrean ematen ari dira ohitura aldaketak, eta tele-lana eta on-line parte hartzeko formatoak geratzeko etorri

dira. Inolako zalantzarik gabe, jendarteak jarduera politikoan eta erabakiak hartzeko guneetan parte hartzeko formatu berriak bilatzea ezinbestekoa da, eta gero eta gehiagotan eskatzen da hori.

- 184 Errealitate sozial horrek alderdi eta agente sozial guztiengan du eragina. EUSKO ALKARTASUNA, EH Bildu eta EH Bai ere errealitate horren barnean daude. Horretaz jabetuz, EUSKO ALKARTASUNAK parte-hartzerako, kontsultarako eta gardentasunerako mekanismoak diseinatu behar ditu, eta proiektu estrategikoarekin identifikatzen diren eta proiektu guztiei balio politiko eta publiko erantsia ematen dioten pertsona berriak erakartzeko beharrezkoak diren aldaketak ausardiaz egin behar ditu.
- 185 EUSKO ALKARTASUNAREN ustez, EH Bai-k Ipar Euskal Herriko herritarren erreferente nagusi bihurtu behar du, abertzaletasunetik haratago joanez ere. Parisen mende ez dagoen, soil-soilik Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako gizon eta emakumeak oinarri izango dituen eta haien esanera jardungo duen erreferentzia izan behar du.
- 186 Horretarako, ezinbestekoa izango da beste plataforma batzuekin lankidetzak sakontzea, adibidez Batera plataformarekin, herritarren zati handi baten premiekin bat egiten duelako eta abertzaletasuna indarkeriazko gatazkearekin lotu duen eszenatokia gainditzeko aukera ematen duelako.
- 187 EUSKO ALKARTASUNAK EH Bilduren proiektu partekatuari egingo dion ekarpen politikoari dagokionez, beharrezkoa da barne-eztabaidak behin betiko gainditzea, EH Bilduren aniztasunari herritarrek atxikitzeke marjinak zabaltzea helburu izan behar duen behin betiko akordio batean oinarrituta. Proiektu horrek askotarikoa izan behar du, EUSKO ALKARTASUNAREN ekarpen politikoak argi eta garbi islatzeko modukoa.
- 188 Hori dela eta, ponentzia honek ezartzen du EUSKO ALKARTASUNAREN afiliazioak EH Bilduren egituraketa-ereduari dagokionez egokien irizten dion jarrera, bere helburuak kaudimenez lortu ahal izateko. Jarrera hori, ondoren, federazioa osatzen dugun gainerrako alderdi politikoekin negoziatu eta bateratu beharko da.
- 189 EH Bilduk erreferentzia izan nahi behar du gehiengo sozial eta plural batentzat, hain zuzen ere herri gisa dagozkigun eskubide demokratikoak baliatzeko borondatean bat etorriko den gehiengo batentzat, indar independentisten aukera zabala barne hartzen duena eta, desberdintasunak desberdintasun, proposamen aurrerakoiak dauzkaten ibilbide zabaleko eta partekatzeke moduko programak onartzeko gauza izango dena.
- 190 EH Bilduren proiektuarekiko herritarren atxikimendua indartu eta zabaltzeko EUSKO ALKARTASUNAK egiten duen apustuan, EH Bildurekiko posizioa honela definitzen du EUSKO ALKARTASUNAK:
- 191 Hamarraldi bat igaro da ezkerreko soberanismoaren espazio politikoak artikulatzen hasi ginenetik, eta gaur egun EH Bildu errealitate politiko-organizatibo egonkortua da hego Euskal Herrian. Onartu berri den EH Bilduren ponentzia organizatibo-estatutarioan jasota geratu den bezala, Euskal Herria Bildu Federazioa Alternatiba Eraikitzen, Eusko Alkartasu-

na eta Sortu alderdi politikoez eta ezein alderdi politikorekin zuzeneko loturarik ez duten pertsonen osatuta dago. EH Bildu koalizioen forma, alderdi baten egiturak eta mugimendu-izaera dituen subjektu politiko bezala definitu da, eta hiru antolakuntza-tradizio horien ezaugarriak onenak biltzen ditu: koalizioen aniztasun ideologikoa, alderdi-egituren eraginkortasuna eta herri-mugimenduen parte-hartzea eta horizontaltasuna.

- 192 Horregatik, funtsezkoa da federazioa osatzen duten alderdi politikoen zeregin nagusia EH Bildun kokatzea, bakoitzaren protagonismo politiko propioa errespetatuz, beren lana, ibilbidea eta altxorra federazioaren sintesian modu garbian eta batuketa moduan sar daitezten. Federazioaren sendotasuna, ahalmena eta zabaltasuna berau osatzen dugun alderdi politikoei helburu komunak lortzeko lehentasuna emateko duten konpromisoan datza, beren historiari eta nortasunari uko egin gabe, urteetako desadostasunen ondoren zailtasun juridiko, politiko eta giza zailtasunei aurre egitea ekarri duen erantzukizun politikoko ariketa batean.
- 193 Horregatik, EH Bilduren aldeko apustu garbia berretsiz, eta proiektuarenganako herritar anitz eta irekien atxikimendua indartu eta zabaltzeko asmoz ekarpen bat egin nahian, EUSKO ALKARTASUNAK bere jarrera definitu nahi du EH Bilduri eman beharreko bultzada berriaren inguruan, honako premisa hauetan oinarrituta:
- 194 EH Bilduk espektro ideologiko plural eta zabala osatu nahi du, non berau osatzen dugun alderdiek zein filiaziorik gabeko pertsonen dakartzaten dinamika eta tradizio guztiak integratu eta elkarri indarra emango dioten; hori guztia parte hartzeko eta erabakiak hartzeko eredu bakarren inposaketatik ihesiz eta federazioa osatzen dugun alderdion barne-prozesuak errespetatuz. Hori guztia lan-foroak egituratu beharra eta ezinbesteko egitura komunak antolatzekeo premia ahaztu gabe, pluraltasuna ekintza politiko bateratu, efiziente eta eraginkor batean kohesionatu ahal izateko. Hori horrela izanik, EUSKO ALKARTASUNAK berresten du onartu berri den EH Bilduren ponentzia organizatibo-estatutarioa, eta nola ez, bertan jaso diren printzipio orokorrak eta funtzionamendu-printzipioak. Bertan definitzen dira, besteak beste, EH Bilduren gobernu organoak zeintzuk izango diren eta alderdi politikoei horietan izango duten ordezkaritza.
- 195 EUSKO ALKARTASUNAREN estatutueta 1. artikuluan jasota dagoena kontuan hartuta («...zeinaren helburuak baitira Euskal Herriaren independentzia lortzea eta Europar Batasunaren barnean Estatu propioa eraikitzea, Euskal Errepublika, baita jendarte bidezko eta solidarioagoa lortzea ere»), EH Bildu da gaur egun EUSKO ALKARTASUNARI 1. artikulua gauzatzen ondoen lagun diezaiokeen tresna. Gure herrian askatasuna eta justizia soziala lortu nahi dituen pertsona oroentzako subjektu politikoa da. Erabilgarri eta eraginkorra da, bai instituzionalki, bai herri mugimenduei dagokienez; eta, horregatik, kolektibo eta pertsona berriak gehitzeko bokazioari eusten dio, EH Bildu koalizioak islatzen duen ortzadarrean kolore berriak barne hartzeko asmoz.
- 196 Kongresu, Biltzar eta batzar nagusietan kontuan hartu eta eztabaidatuko diren hitzarmen, dokumentu eta proposamen guztiek EH Bilduren alderdien mahaiaren aurretiko adostasuna beharko dute. Ondoren, jasotako ekarpenak eztabaidatu egingo dira eta, adostasuna egonez gero, jatorrizko proposamenekin batera txertatuko dira.

- 197 EH Bilduren proiektzio komunikatiboak eta jarduera publikoak ere hain beharrezkoa den pluraltasunarekin bat egin behar dute, eta horretarako, unean-unean beharrezkotzat jotzen diren bozeramaile guztiak definituko dira.
- 198 Beste herrialde batzuetako taldeekin historikoki izandako harremani eutsi egingo die talde politiko bakoitzak, eta hori EH Bilduren kanpo-ekintzan jasoko da.
- 199 Bestalde, EUSKO ALKARTASUNAK, bere estatutuek ematen dioten legitimitateaz, konpromisoa hartzen du ordezkari politikoaren bidez Eusko Alkartasunaren jarrera EH Bilduren erabakiguneetara helarazteko, hargatik eragotzi gabe gai estrategikoak EUSKO ALKARTASUNAKo barne-organoetan eztabaidatu eta erabakitzea.
- 200 Pertsonen hautaketari buruzko negoziazio-foroetan (erakundeak, barne-erantzukizunak, eta abar) parte hartzen duten pertsonak ezin izango dira negoziazioaren xede diren pertsonak izan.
- 201 EUSKO ALKARTASUNAK EH Bildu federazioari egiten dion ekarpena funtsezkoa da; esperientzia demokratiko handia duelako, pertsona guztien eskubide guztien defentsan zehazten den konpromiso etikoa duelako, ideia-multzo independentista erradikal eta sozialdemokratikoa duelako, eta EH Bildu osatzen duten gainerako alderdien eskuetatik kanpo dagoen gizarte-atxikimendua lortzen duelako.
- 202 Horregatik guztiagatik, estatutuetan eta antolaketan aldaketak egin behar dira, EUSKO ALKARTASUNAREN sorrerako balioak errespetatuz, gure alderdiak EH Bilduri ahalik eta ekarpen onena egin diezaion.
- 203 EUSKO ALKARTASUNAREN indarberritzeak honako printzipio hauetan oinarritu beharko du:
- 1.- EUSKO ALKARTASUNAK nazionalismo barne-hartzaile, zibiko, ezkertiar eraldatzaile eta adeitsuaren aldeko apustua berresten du, konbentzimenduaren bidez mugak zabalduko dituen eta gizarte osoarekin eta haren premia eta interesekin duen loturari esker herritarren atxikimendua lortuko duen nazionalismoa, alegia.
 - 2.- EUSKO ALKARTASUNAK bere espazioan lanean jarraituko du bere proiektuaren alde, hura zabalduz, gure herriaren etorkizunean estrategikoki eragina izateko gai den alderdi bat izaten jarraitzeko erronkari erantzuteko.
 - 3.- Gure egungo eta etorkizun hurbileko errealitate politikoaren erronkak eta aukeak kontuan izanik, Euskal Herriak gidatuko duen prozesu independentista batean gizartearen gehiengoa elkartuko duen proposamen bat artikulatu nahi du EUSKO ALKARTASUNAK.
 - 4.- Mankomunitate bakarrak (Euskal Elkargoa) lehen urratsak egin zituen 2017an, eta aurrerapauso bat suposatzen du Ipar Euskal Herriaren gobernuarentzat eta Hego Euskal Herriarekiko lankidetzarentzat. EH BAIK aktore nagusi izan behar du eszenatoki horretan. Herritarren bizi-baldintzak hobetzeak proiektu nazionalerako beharrezkoa den babesa ekarriko du ondorio gisa, baina hori lortzeko, indar aber-

tzaleek historikoki banandurik okupatu dituzten espazioak gainditzeko gai izan behar du EH BAIK, eta asmo handiz eta modu bateratuan jardun,

- 5.- EUSKO ALKARTASUNAK EH Bildun dauden alderdi politiko eta pertsona ez atxiki-ekin lankidetza estrategikoa eta ekintza-batasuna lortzea beharrezkoa dela berresten du. Gainera, proiektu horietako bakoitzaren nortasuna sakonetik errespetatuz, lankidetza hori eta, posible denean, ekintza-batasun hori aurrez aurre ditugun erronkei erantzuteko bloke sozial indartsua eratu dezaketen indar, mugimendu eta pertsona guztietara zabaltzeko lan egin behar dugu, kolektiboekin, mugimenduekin, sindikatuekin, agente sozialekin, gobernuz kanpoko erakundeekin eta abar bat etorriz. Horretarako, EUSKO ALKARTASUNAK eta EH Bilduk aurrera eramane behar dute biztanlegune handietan ezartzeko prozesua, hiri-subjektu politikoen eskura garapen eta aurrerapen politikorako behar diren bitartekoak jarritz.
- 6.- EH BILDU federazioaren helburu estrategikoak hobeto gauzatzeko, EUSKO ALKARTASUNAK, bere ekarpenaren balioak legitimatuta, parte hartzeko eredu eraginkor eta anitza bultzatuko du, federazioaren helburu komunak lortzen lagunduko duena.
- 7.- Horretarako, EUSKO ALKARTASUNAK, bere gobernu- eta kontrol-organoen bitartez, lan egingo du EH Bilduko eztabaidagune eta erabakigune guztietan parte hartzea eta presentzia bermatzeko eta bultzatzeko.
- 8.- Azken batean, neurri horiek oinarritzat harturik, EUSKO ALKARTASUNAK indartu egiten du EH Bildurekin duen konpromiso estrategikoa, betiere gure oinarri ideologikoekiko koherentziari eutsiz eta gure nortasuna errespetatuz, eta Biltzarreko dokumentu honetan konpromiso hori indartuko duela adierazten du, herritarren atxikimendua lortzeko eta herritar guztien eta Euskal Herri osoaren beharriei erantzun eta irtenbide egokiak emango dizkien indar politiko nagusia izateko.

